*Zelan ikusten duzu futbolak gizartean duen eragina?* /7

# Goienkaria

**KIROLAK**
ULMA-CEGASA TXIRRINDULARI TALDEAREN AURKEZPENA /10

EGUBAKOITZA • 2001eko otsailaren 16a • II. urtea • 10. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**HERRIZ HERRI**
Urkuluko ura Antzuolara eroateko lanak hasiko dituzte martxoan /5

**PODIUMA**
Imanol Etxeberria, atezain on baten une txarrak /11

**KOLDO ZUAZO**
*"Helburua da jendea bere euskararekin gustura eta eroso egotea, ez lotsatzea"* /9

**GOIENKA2A: MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA BERGARARRA ARCO ARTE AZOKAN /14**

# Abesbatza berria bailaran

### *Lausardi koruaren estreinaldia zapatuan Bergaran*

Lausardi Koru Sinfonikoa oraingo astean aurkeztu dute. Debagoieneko abesbatza izateko bokazioarekin jaio da. Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu dira abesbatza berriaren sustatzaileak, baina bailarako gainerako abesbatzei ere ireki dizkiete ateak. Dagoeneko, Oñatiko Ganberak eman du egitasmoan esku hartzeko baietza. Lausardiren bultzatzaileek adierazi digutenez, proiektu koral berri hau aitzindaria da Euskal Herrian.

Debagoieneko abesbatzaren estreinaldi ofiziala oraingo zapatuan izango da Bergarako San Pedro elizan. Orfeoiko eta Goikobaluko zuzendariek, David Azurzak eta Iñaki Maidaganek, zuzenduko dute Lausardi. /2-3



Lausardi Koru Sinfonikoko sustatzaile eta kolaboratzaileak oraingo astean Donostian egindako aurkezpenean.

EDURNE KOCH




**URKULUKO URA ANTZUOLARA**

## Urik jasotzen ez duen herri bakarra

Antzuola da Urkuluko urtegitik urik jasotzen ez duen mankomunitateko herri bakarra. Orain, herriko iturburuetatik eramaten dute ura Antzuolako etxeetara. Hortaz, aurrerantzean, Urkuluko urtegitik Antzuolara ura ekartzeko proiektua behin betiko onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lanekin martxo aldera hastea aurrez ikusi du Diputazioak. /4

**BURDINDEGI AZOKA**

## Bailarako zazpi enpresa Kolonian

Domekan hasi eta eguaztenera bitartean, burdindegiarekin lotutako milaka enpresa elkartuko dira Kolonian, Alemanian, azoka ikusgarrian. Bailarako zazpi enpresa ere han izango dira. Horietako bat Mondragoeko JMA da, azken 15-20 urteetan hantxe izan dena. Andoni Altube JMAko kanpo merkatuetako arduradunak eman dizkigu argibide gehiago. /5

**GARAPEN PLANA GATZAGAN**

## Nekazaritzako plan berria aurkeztu da

Leintz Gatzagako Nekazaritzaren Garapen Plana aurkeztu zen martitzenean Gatzagako Udaletxean. Oskar Azkarate arrasatearrak landu duen planak herriaren arlo turistikoa, soziala eta enpresariala lantzen ditu. Datozen bost urteotan Leintz Gatzagan aurrera atera beharko diren estrategiak proposatzen dira oraingo astean aurkeztu den garapen plan berri horretan. /5

HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • SAILKATUAK/8 • KIROLA/10-11 • KULTURA/14-15 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/23

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko otsailaren 16a



Bergarako Orfeoiko, Oñatiko Ganbarako eta Goikobaluko, hau da, Lausardi Koru Sinfonikoko ordezkariak astelehenean Donostian.

EDURNE KO[...]

# Lausardi

## *Bailarako koru sinfoniko berria*

EÑEKO AZKARATE

Oraingo astean aurkeztu dute Lausardi Koru Sinfonikoa. Debagoieneko abesbatza izateko bokazioarekin jaio da. Bergarako Orfeoiak eta Arrasateko Goikobalu abesbatzak sortu dute, baina bailarako gainerako abesbatzei ere ireki dizkiete ateak. Eta bailarako abesbatzei ez ezik, eskualdetik kanpoko inguruko herrietako abesbatzei ere egin diete gonbita. Sustatzaileen esanetan, "proiektu koral berri hau Euskal Herrian aitzindaria da".

Hasieran, hortaz, Orfeoiko eta Goikobaluko kideek osatuko dute Lausardi, eurak izan direlako bultzatzaileak. Edozelan ere, Oñatiko Ganbera ere prest agertu da egitasmoan parte hartzeko eta ahal duten guztietan kolaboratzeko. Hiru abesbatzetako ordezkariek aurkeztu dute egitasmoa Donostian eta Bergaran.

**90 BAT LAGUNEN ABESBATZA**

Debagoieneko abesbatzaren estreinaldi ofiziala zapatuan izango da Bergarako San Pedro elizan. "Bakoitzak bere aldetik egin ezin dituen proiektuei aurre egiteko sortu dugu koral berria. Hainbat emanaldi, orkestrarekin batera eskaintzen direnak batez ere, ezin ditzakegu bakarrik antolatu. Horrelakoetan, orain arte, beste abesbatza batzuen laguntza behar izan dugu. Aurrerantzean, ordea, 90 bat laguneko abesbatza osatuko dugu eta errazago bultzatu ahal izango ditugu ekimen berriak", esan dio *Goienkaria*ri Bergarako Orfeoiko zuzendari David Azurzak.

Bestalde, autore euskaldunen lanen estreinaldiak, grabaketak, lan berrien enkarguak, partituren argitalpena, umeen koruendako proposamen berriak eta abar bultzatuko ditu Lausardik. Oro har, ahots asko eskatzen dituzten obra sinfonikoak. Horrez gain, ahotsa lantzeko edo teknika hobetzeko ikastaroak antolatzeko asmoa ere badute. "Era honetako ekimenak errazago bultzatu edo antola daitezke elkarrekin lan eginez gero", esan digu David Azurzak.

**GAURKO ABESBATZEN OSAGARRI**

Herrietako abesbatzen osagarri izango da Lausardi, hori argi eta garbi laga nahi izan dute abesbatzotako ordezkariek. "Lausardi Koru Sinfonikoa sortzeagatik, ez da bakoitzaren herriko korua desagertuko eta ezta koru hauen jarduna murriztuko", adierazi dio *Goienkaria*ri Goikobaluko zuzendari Iñaki Maidaganek.

Bestalde, bailarako abesbatzen bat-egite prozesu horrek umeen koruei ere eragingo die: "Txikien koruek ere elkarrekin hainbat lan egingo dituzte. Hortaz, denok, bai nagusiak zein gaztetxoak, lan dinamika bera segituko dugu", diosku Maidaganek.

David eta Iñaki izango dira koru berriaren zuzendariak. Egitasmoen arabera, batek edo besteak zuzenduko du. Zapatuan Bergaran eskainiko duten kontzertuan, esaterako, biak arituko dira: lehenengo zatian, David, eta bigarrenean, Iñaki.

**DIRU LAGUNTZAK**

Korua jendearen aurrean aurkeztu eta proiektu berriak garatzen doazen neurrian, egitasmoak diruz laguntzeko hainbat erakunde eta enpresa pribaturen ateak joko dituztela aurreratu zuten Lausardiko arduradunek. Orain artekoak Orfeoiak eta Goikobaluk finantzatu dituzte.

Entseguak koru bakoitzak bere aldetik egingo ditu, baina egitasmo berezietan, kontzertu berezietan, hilabete edo bi hilabete lehenago elkartuko dira. Bestalde, zuzendaritzan, hasieran, Orfeoiko eta Goikobaluko zuzendaritzetakoak izango dira.

# Mugarrietako landarea

Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Goikobalu iaz hasi ziren bailarako abesbatza sortzeko lanean, eta harrezkero makina bat bider batu dira bateko eta besteko ordezkariak.

Elkarlana, ordea, lehenagokoa da. 1999ko abenduan Goikobaluk Amaia Antzokian *Carmina Burana* aurkeztu zuenean David Azurzaren laguntza izan zuten. Obra horretarako korua osatzeko zailtasunak izan zituzten Goikobalukoek. Gauza bera gertatu zitzaion Bergarako Orfeoiari *Stabat Mater* obra eskaini zuenean. Orduan hasi ziren koru berriaren ideia lantzen.

Bestalde, azkenaldian, koruarendako izen bila ibili dira. Bailarako herri guztietako abesbatzen topagunearen ideia erabili dute. Izen bat baino gehiago izan dute aukeran. "Lausarda edo luxarda, latinez *Erodum cicutarium,* sarritan mugarri inguruetan hazten den landarea ei da eta Lausardi Koru Sinfonikoak ere hainbat herritako abesbatzen elkargune izan nahi duenez, hauxe iruditu zaigu egokiena", esan digu Bergarako Orfeoiko presidente Julen Alberdik.

Koru sinfonikoa era grafikoan irudikatuko duen logotipoa Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararrak egin du, oraindik zirriborroa bakarrik den arren.

# Zapatuan estreinaldia

Zapatuan egingo du estreinua Lausardi Koru Sinfonikoak Bergarako San Pedro parrokian. Horretarako, bi obra aukeratu dituzte, biak organoarekin batera kantatzekoak.

Lehenengo zatian, John Stainer (1840-1901) konpositore erromantiko ingelesaren *The Crucifixion* eskainiko dute. Jon Etxabe tenorearen eta Jesus Mari Garcia Arejula baritonoaren laguntza izango dute, eta Aitor Oleak joko du organoa. David Azurzak zuzenduko du korua lehen zati horretan.

Bigarren zatirako, Leonard Bernstein (1918-1990) konpositorearen *Chichester Psalms* lana aukeratu dute. Iñaki Maidaganek zuzenduko du eta honako hauen laguntza izango dute: Aitor Olea (organoa), Ainara Moreno (harpa), Oihan Vega (perkusioa), Maria Jesus Ugalde (sopranoa), David Azurza (kontratenorea), Jon Etxabe (tenorea) eta Jesus Mari Garcia Arejula (baritonoa).

Bergarako Udalak antolatu duen organo zikloaren bukaerako emanaldia izango da. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da, elizetan ezin da-eta sarrerarik kobratu.

## Iñaki Maidagan

GOIKOBALUKO ZUZENDARIA
ARRASATE

Lausardi Koru Sinfonikoa sortzeagatik, ez da bakoitzaren herriko korua desagertuko, ezta koru horien jarduna murriztuko. Hori ez da helburua, herrikoak eta bailarakoa osagarri izatea baizik. Bestalde, txikien koruek ere elkarrekin hainbat lan egingo dituzte. Beraz, denok, nagusiak zein gaztetxoak, lan-dinamika bera segituko dugu eta egitasmoetan elkarrekin lan egingo dugu.



**"Lausardi Koru Sinfonikoa sortzeagatik, ez da bakoitzaren herriko korua desagertuko"**

## David Azurza

BERGARAKO ORFEOIKO ZUZENDARIA / BERGARA

Bakoitzak bere aldetik egin ezin dituen proiektuei aurre egiteko sortu dugu koral berria. Hainbat emanaldi, orkestrarekin batera eskaintzen direnak batez ere, ezin ditzakegu bakarrik antolatu. Horrelakoetan, orain arte, beste abesbatza batzuen laguntza behar izan dugu. Aurrerantzean, ordea, 90 bat laguneko abesbatza osatuko dugu eta errazago bultzatu ahal izango ditugu ekimen berriak.



**"Bakoitzak bere aldetik egin ezin dituen proiektuei aurre egiteko sortu dugu koral berria"**

## Oihana Diaz

OÑATIKO GANBERAKO PRESIDENTEA /OÑATI

Hasiera-hasieratik ideia polita iruditu zaigu bailara osorako abesbatza sortzea, baina beldur apur bat ere ematen digu, gurea koru txikia delako: 18 lagun gara. Abesbatzako kide gehienak gazteak gara eta kanpoan ikasten ari gara. Lehenengo, geureari eutsi nahi diogu, nahiko lan badaukagulako horrekin eta, bestalde, ez dugu nahi gure nortasuna galtzea. Horregatik erabaki dugu laguntzaile bezala sartzea egitasmo horretan.



**"Ez dugu nahi gure nortasuna galtzea, baina hasieratik ideia polita iruditu zaigu"**

## Bailaran, labur

ELKARTASUNA

### Hainbat diru laguntza El Salvadorreko eta Indiako lurrikarak jasan dituztenendako

Oscar Romero Solidaritza Batzordeak 2.245.000 pezeta jaso ditu Bergaran, El Salvadorrera bidaltzeko. Mikel Anduezа aita domingoar bergararrak diharduen ADIC gobernuz kanpoko erakundera bideratuko da dirua. Behin-behineko etxeak eraikitzeko erabiliko dute diru hori, oraingo astean Mikel Anduezak berak *Goienkariara* bidalitako mezu baten aditzera eman duenez . Bestalde, Gipuzkoa osoan 8.842.000 pezeta jaso ditu Oscar Romerok, eta, horrez gain, Gizpuzkoako Caritasek hamar milioi bideratu ditu ADIC gobernuz kanpoko erakundera. Eroskik ere El Salvadorrerako diru batzea egin du: 504.000 pezeta jaso ditu bailarako saltokietan, eta Estatu osoan, ostera, lau milioi pezeta. Indiako lurrikara jasan dutenei laguntzeko ere ekimen bat abiarazi du Eroskik. Bost anbulantzia bidali gura ditu, eta El Salvadorrekin egin duen bezala, saltokietako sarreretan 100 pezetako txartelak jarri dituzte. Diru batze kanpaina zapatu honetan amaituko da. Jasotako dirua borobildu eta Indiara bidaltzeko anbulantziak erosiko ditu Eroskik, izan ere Indiaren kasuan, dirua bidaltzea baino nahiago dute erabili daitezkeen gauzak jasotzea. Horregatik erabaki dute, Gurutze Gorriarekin elkarlanean, anbulantziak bidaltzea. Dagoeneko bidali dute bat. /MONIKA BELASTEGI

ROUTER COMUNICACIONES, S.L.

**Bost arrazoirengatik erosi behar duzu Euskalteleko saltoki globaletan:**

- Saltzeko orduan arintasuna
- Telefono kostuetan aurreztea*
- Enpresa-merkatuko alderdi garrantzitsuenen informazioa
- Bezeroekin harreman hobea
- Sakelako telefonoen konponketa bideratzeko zerbitzua

**ENPRESA ZERBITZUA:**

- Telefono digitalen telefonogunea
- Telefonia mobila
- Internet
- Telefono finkoak 1050
- Hari digital bariko telefonoak (DECT)

**ZERBITZU PARTIKULARRAK:**

- Aurreordaindutako Euskaltel pack-ak
- Internet
- Telefono finkoak 1050

*2000ko urriko batez besteko kontsumo gordinaren arabera, EAOko tarifekiko %11rainoko aurrezpena.

**ARRASATE**
Maalako errebala, 8-behea
Atzekoa (Garibai)
Tel.: 943 71 27 81
Faxa: 943 71 17 85

**EIBAR**
Errebal, 15
Tel.: 943 70 03 69
Faxa: 943 20 63 79

**SALTOKI GLOBALA:**

Euskaltel

ARAMAIO | LIBURUAK

# Sagitario literatura sarietako bi liburu argitaratu dira

*Palestina eta Afrikari buruzko bidaia liburuak*

XABIER URZELAI

*Kontatzeke lagata* eta *Palestina, ombligo del mundo* lanak dira Aramaion egiten den Sagitario literatura sarien irabazleak. Orain, lan horien 1.000 ale argitaratu dira, besteak beste, eskoletan eta beste zenbait lekutan banatzeko.

Lehiaketa horretan parte hartzeko derrigorrezkoa izan da, gutxienez, Europako mendebalera bidaiatu izana. Azken baten, bidaia baten bizi izandako uneak era literarioan azaltzen dituzte lan guztiek; baina, literatura arloa baino, ibiltariaren esperientziaren originaltasuna lehenetsi dute.

Liburuen egileek, Edu Romerok eta Ander Ezagirrek, 125.000 pezeta, bakoitzak, irabazteaz gain, Tashkent edo Teheranerako joan-etorriko txartelak ere eskuratu dituzte.

**PALESTINA ETA AFRIKA**

*Palestina, ombligo del mundo* liburuan idazleak herrialde horren deskripzio zehatza egiten du. Horretarako, bere bidaiaren hainbat pasarte argitu eta Palestinaren ikuspegi hurbilagoa eskaintzen du.

Edu Romero da *Kontatzeke lagata* liburuaren egilea, eta liburu horrek Afrika hegoaldera joateko aukera eskaintzen du. Botswana eta Zimbawen bizi izandakoak argitzen ditu idazleak, eta horrez gain, aurreko idazlearen antzera Afrikako txoko hori hobeto ezagutzeko aukera ematen du. Gure asmoa munduan zehar osteratxo bat egitea bada, irudimenaz bada ere, liburu aproposak dira biak.




Argitaratutako liburuetariko bat.

LEINTZ GATZAGA | NEKAZARITZA PLANA

# Leintz Gatzagarako nekazaritza arloko garapen plana aurkeztu zen

*Herriaren beharrak aztertu eta aurrera begirakoak finkatu dira*

SAIOA OJANGUREN / IÑIGO BIAIN

Joan den martitzenean aurkeztu zen Leintz Gatzagako Udalean Oskar Azkaratek urtebetez landu duen Nekazaritzaren Garapen Plana. Oskar arrasatearra da, eta bekadun bezala izan da Gatzagako Udalean, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko elkarte instrumental Mendikoi enpresaren bitartez. Oskarrek landutako Garapen Plana hainbat ardatz kontuan izanda jaio da, besteak beste, turistikoa, soziala edo enpresariala.

Mendikoi enpresa Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza elikagaien gauzatzeaz arduratzen da, eta besteak beste, garapen planak diseinatzea da betebeharretako bat. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, Oskar Azkaratek bete duen lana. Duela bost urte 1995-2000 urte bitarteko garapen plana onartu zuen Gatzagako Udalak, baina finkatu ziren hainbat behar ezin izan dira epe horretan bete. Horren aurrean, lehendik egindako planaren balorazioa egin du Oskarrek, eta aurrera atera ez diren ekimenen arrazoia aurkitzen saiatu da.

Hori guztia oinarritzat hartuta, eta puntu honetatik abiatuta, datozen bost urteetan Leintz Gatzagan aurrera atera beharko diren estrategiak proposatzen ditu Oskarrek, baina argi utzi gura izan zuen proposamenok horixe besterik ez direla, proposamenak, eta bere lanaren ondorioz gomendatzen duena ez dela derrigorrez berak esan bezala bete beharko.

Oskarrek bere lana abiapuntu bezala ikusten du, eta edozein proposamen berri ateraz gero, aztertu eta aurrera eramateko aukera azpimarratu gura izan zuen.

Aurkezpenean Joseba Agirreurta, Leintz Gatzagako alkatea, Birjinia Andres, Mendikoi enpresako ordezkaria eta Oskarren tutore lanak bete dituena, Oskar Azkarate bera, eta Gatzagako ehiztari taldea, erretiratuen elkarteko ordezkariak eta emakumeen taldeko partaideak ere izan ziren.



Nekazaritzaren Garapen Plana martitzenean aurkeztu zen. SAIOA OJANGUREN

ARRASATE | BAILARAKO ENPRESAK KOLONIAKO AZOKAN

# Andoni Altube/JMAko kanpo merkatuetako arduraduna

## "Aurten, Koloniako azokan giltzak egiteko hiruzpalau makina berri aurkeztuko ditugu"

UBANE MADERA

**Domekan hasi eta eguaztenera arte burdindegiarekin lotutako milaka enpresa Kolonian, Alemanian, elkartuko dira, azoka ikusgarrian. Bailarako hainbat enpresa ere han izango dira: zazpi, hain justu. Horietako bat JMA da, Mondragoekoa. JMA izan zen Koloniako azokara joan zen lehen enpresa mondragoetarra, orain dela 15-20 urte. Andoni Altube kanpo merkatuetako arduradunak eman dizkigu argibide gehiago.**

**— Zertara joaten zarete?**

— Gure produktuak aurkeztera eta gure bezeroekin harremanetan jartzera: estrategia bateratuak diseinatzeko, arazoak konpontzeko... Gainera, erosle eta banatzaile berriak aurkitzeko ere oso aukera ona da feria.

**— Aurten, zerbait berezia aurkeztu behar duzue?**

— Gure arloan, giltzarenean, zaila izaten da berritasunak aurkeztea. Baina, aurten, adibidez, giltzak egiteko 3-4 makina berri aurkeztuko ditugu. Bilboko Ferroforma azokan makina horien zirriborroak aurkeztu genituen eta orain, makinen behin betiko aurkezpena egingo dugu. Horrez gain, azkenaldian Interneteko bideak lantzen ari gara. Kolonian aurkeztuko dugu egin berri dugun webgunea. Hori guztia erakusteko, 100 metro koadro eta bi pisuko *stand*-a dugu eta, gainera, pantaila erraldoi baten bidez webgunea erakutsiko dugu. 10 bat lagun izango gara lanean.

**— Inportantea da azoka?**

— Oso garrantzitsua da, bai, bereziki, kanpo merkaturako. Barne merkaturako, ostera, Bilboko Ferroforma izango da garrantzitsuena.



**— Era berean, garrantzitsua izango da besteek egiten dutena jakitea...**

— Bai, jakina. Bereziki, gure bezeroek aurkezten dituzten berritasunak ikusteko.

**— Zenbat enpresa joaten zarete?**

— Giltzen arloan, laupabost, baina zerrailategi arloan, askoz gehiago. Euskal Herritik 50 enpresa baino gehiago.

**— Beste azokaren baten parte hartzen duzue?**

— Hain garrantzitsua denik, ez. Bilboko Ferroforma ere garrantzitsua da. Bestela, Italian, Argentinan, Errumanian, Irlandan... azoka txikiagoak izaten dira eta gu ez gara hara enpesa moduan joaten; hala ere, gure banatzaileak joaten direnean, haiei laguntzera joaten gara. Gure merkatua geroago eta nazioartekoagoa da. Gaur egun, 80 herrialdetara bidaltzen ditugu giltzak. Arrasateko JMA da enpresa nagusia, baina Italian eta Mexikon lantegiak ditugu, eta datorren martxotik aurrera Argentinan ere izango dugu.

ARETXABALETA

# Kintoek botatako etxafuegoek neska bat zauritu zuten

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan zen asteburuan gertatu zen ezbeharra. Kintoek botatako etxafuego batek L.H.M. zazpi urteko neskaren ondoan eztanda egin eta, horren ondorioz, entzumen arazoekin eskualdeko ospitalera eraman zuten. Gauzak horrela, gaztearen gurasoek kexu formala jarri zuten udalean. Alkate eta kultura batzordekoek gertatutakoa aztertu eta neurriak hartzekotan dabiltza. Neskaren egoerari dagokionez, sendagaiak hartzen dabilen arren, dagoeneko ondo dagoela ziurtatu dute gizarte laguntzaileek.

Bestalde, domekan ertzaintzak hainbat kinto identifikatu zituen, herri erdialdeko garaje batzuetan etxafuegoak jaurti eta kalte materialak eragin zituztelako. Urtero, tankera bereko arazoak izaten dira Santa Ageda mutilekin. Erantzukizuna, baina, eurena da, udalak ez die-eta etxafuegoak erosteko inongo diru laguntzarik ematen. Udalak, konponbideren bat aurkitu beharko du.

# Zabalik



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

## Zer irakatsi?

**Zer dago PPk egindako Humanitate dekretu horren atzean?: eskolan landu beharreko edukiak eta helburuak.**

**Espainiako Hezkuntza Ministerioak proposatuta, Ministroen Kontseiluak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) eta Batxilergoko gutxieneko irakaskuntza berriak ezartzen dituen Errege Dekretua onetsi zuen. Aldatzeko arrazoiak hiru izan ziren, batez ere: lehenik, DBH bukatu duten 12-16 urteko ikasleen lehendabiziko promozioen emaitza ez hain ona izatea. Badirudi eskola porrota tasa dezentezkoa izan dela. Bigarren arrazoia, ikasleek erraztasunak behar dituela lurralde nazional osoan zehar mugitzeko aitzakiaz, helburu eta eduki komunak hobeto zehaztu beharra. Eta bukatzeko, hirugarrena, curriculuma gaurkotu beharra.**

**Arestian azpimarratutako arrazoiei kontra egiteko pisuzko hausnarketak badaude. Alde batetik, orain arte ez dagoela ofizialki inongo ebaluaketarik, esateko ikasleek ikasteko arazoak dituztela. Jakina, ez dut esaten arazorik ez dagoenik, egon badaudelako, baina aspaldìtik diagnostikatuta daude, eta ez dut uste egindako sasi-erreforma honek konpontzen dituenik. Bestetik, DBH-ko curriculum berriak prozedurak eta jarrerak ahazten dituela, eta kontzeptuak lantzeko planteamendu akademizista atzeratu bat planteatzen duela. Are gehiago, curriculuma itxi egiten duela. Bukatzeko, Batxilergora joz, eta bertan ematen den historiara, gai hau guztiz kronologikoa eta egungo errealitatea ulertzeko (geure errealitatea, jakina) baliagarria ez dena proposatzen duela.**

**Beraz, arazoak arazo, ea politikarioak helburuak eta edukiak ezartzeko jartzen duten gogo bera ere jartzen dioten beste galdera honi erantzuteko: Nola irakatsi?**

**Ea behingoan pedagogoen, psikologoen eta irakasleriaren eskuetan lagatzen duten irakaskuntza, eskola osasuntsuagoa izan dezagun; eta agian gauza bera egingo balute gizartearekin ere...**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## 21 urte espetxean lehen graduan

1980ko otsailaren 19an, Aratuste Martitzenez, atxilotu zuten Bergaran kalejantziz mozorrotutako guardia zibil batzuek. Egunetan torturatu zuten, handik urtebetera epaitu, eta 34 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, nahiz eta bere sumarioan odoldeliturik ez agertu.

Hogeita bat urte pasatu dira harrezkero, eta Jose Marik kartzelan jarraitzen du. Soria, Herrera, Alcala, Kordoba, Sevilla, Puerto (10 urte) eta beste hainbat kartzela ezagutu ditu, eta orain Salamancako Topasen dago, "hurbiltze politika"ren harira.

Bere sumariokideak aspalditik daude kalean. Berak ere 1995ean irten behar zuen, zegokion bigarren gradua aplikatu izan balitzaio; izan ere, urte horretan bete zituen bere kondenaren hiru laurdenak. Baina, 21. urtea betetzen den honetan, oraindik lehen graduan daukate, eta imajina daitekeen baldintza txarrenetan. Eta hau gutxi balitz, ez diote irteera egunik izendatzen; zuzendari eta epaileen arbitrarietatearen esku dago zeharo.

Amnisty Intenational, Estrasburgo, Defensor del Pueblo, Epaitegi Gorena eta Konstituzionala, eta beste hainbat instantziatara jo du adskripzio politikorik ez duen Etxanizen aldeko Plataforma honek, baina alferrik.

Garbi dago begitan hartua dutela eta ez diotela barkatzen kartzela barruan bizi-baldintza minimo batzuen alde eta zuzendari eta funtzionario zakar eta ustelduen kontra eraman duen borroka etengabe eta ausarta. Preso komun zein politiko askoren aita, laguna eta abokatua izatea egokitu zaio Jose Mariri urte luze hauetan. Berak idatzitako errekurtsoei esker kaleratu da hainbat preso, eta lortu da hobekuntza ugari egon den lekuetan. Beti burua tente, ez du sekula beldurrik izan bere begiraleen bidegabekeriei aurre egiteko, garesti ordaindu beharko zuela jakinda ere.

1999ko irailean eraman zuten Puertotik Topasera. Hurbiltze eta hobekuntza moduan saldu nahi izan zigutena, guztiz alderantziz gertatu da. Komunikazio guztiak interbenituta ditu (bisita guztiak grabatzen dizkiote, hartzen eta bidaltzen dituen gutunak irakurtzen), bisita errejimenak txarrera egin du nabarmen, ez du kirolik praktikatzeko aukerarik, etab.

2000ko otsailean, funtzionario mordo baten artean jipoitu eta arrastaka eraman zuten beste zelda batera. Motiboa? Traslado en (hainbatgarrena baitzen denbora gutxian) zergatiak tinko eskatu izana. Saihestsak apurtuta laga zuten beste zeldan.

Ikasketei dagokienez, Magisteritza (Heziketa Berezia) eginda eta Zuzenbideko lehen hiru kurtsoak aprobatuta heldu zen Topasera. Baina, ezin izan du ikasketekin jarraitu; besteak beste, eta gezurra badirudi ere, zaŗatagatik: jipoiaren ondoren eraman zuten zeldak gainean du kartzelako ate automatikoen motor-gela, ez ikasten eta ez lo egiten uzten diona.

Bestalde, ikasketengatik eta beste hainbat gauzagatik dagozkion erredentzio urteak ere ez dizkiote zuzen aplikatzen, eta gaur gauza bat eta bihar beste bat esanez nahasten dute.

Ematen du hainbeste urtean lortu ez dutena -burua makurraraztea eta pertsona bezala suntzitzea, alegia- lortu nahi dutela azken txanpan. Mendeku hartu nahia dagoela honen guztiaren atzean. Bestela ezin da ulertu hain jokaera ankerra.

Egoera jasanezin honen aurrean, Jose Mari Etxanizen berehalako askatasuna exijitzen diogu dagokionari, eta gizarteko sektore guztiei beren elkartasuna eskatzen, bidegabekeria hau behingoz amai dadin.

BERGARARA PLATAFORMA
Bergara

## Oñatin inoiz ez dugu GOITB ikusiko?

Ez dut ulertzen! Ez dakit zergatik iza[n]go den eta nor izango den egoera ha[u] horrela, geldirik, egoteko interesa duena[;] hala ere, nire kezka erakutsi gura nuke oña[tiarroi] doan banatzen diguten asteka[ri] honetan. Doan diot, jakin baitakit gure uda[lak] ez duela txakur handirik ere ema[n] herriko buzoi guztietan ostiralero banatze[n] den arren.

*Goienkaria*n bertan irakurri ahal iza[n] dut GOITBn Oñatiko alkatea zegoela gon[bidatua] elkarrizketa bat egitera. Elka[rrizketa] hori, dirudienez, luze joan zen eta guk ezin ikusi alkatea gure herriaren gai[neko] kontuez jardunean.

Herritarrak itsu + gor = mutu. Zerga[tik]?

Ez dakit Goienako mundu horreta[n] Oñati baztartu xamar utzi duten edo gur[e] herriko taldeek proiektu horretan sinist[u] eta berau bultzatzen egon, eta gero zerga[tik] ez dagoen bai *Goienkaria* eta bai GOIT[B] Oñatin guztiz finkatuta. Goienatik hurbi[l] dagoen lagun batekin, hala ere, komenta[tu] dut gaia eta Goienak zein Laixanek aha[l] duten guztia egin dutela esan dit. Kontu[a] Oñatiko Udalarena ei da, beraz. Uste du[t] badela ordua gaia konpontzeko eta Leint[z] aldeko herrietan bezala, GOITB Oñatin er[e] ikusteko.

I. MOLINERO
Oñati

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## *Eztabaida*

Futbolak zoratu egin gaitu erabat. Komunikabideetan futbolaren gaineko albiste, saio edo emanaldiak dira irakurle, ikusle eta entzulerik gehien erakartzen dituztenak; *Marca* da egunkaririk salduena, futbol izarrak dira diru gehien irabazten duten "langileak", ez dago futbol partiduek beste jendebatzeko indarra duen ekitaldirik edo kale bilkurarik... Eta tabernetan, kalean, lantokian, etxean... zeri buruz aritzen gara futbolaren gainean ez bada? Erabateko eragina du futbolak. Ona ala txarra da hori?

# Zelan ikusten duzu futbolak gaur egun gizartean duen eragina?

## *Berbetarako aproposa iruditzen zait futbola*



JOSEBA LEZETA
Kazetaria

Ez dut nik idatziko futbolik gabe bizi ezin daitekeenik. Majo biziko ginateke Realik eta Athleticik gabe, batez ere, galtzen dutenean -aspaldian, nahi baino sarriago-. Probatu asteburu batean irratia eta telebista piztu gabe, eta egunkaria irakurri gabe. Primeran pasatuko duzue. Baina, futbola defenditzeko eskatu didate. Niri, behintzat, berbetarako aproposa iruditzen zait. Ederra da literaturaz edo arteaz hitz egiteko gauza izatea, jantziago ematen du horrela pertsonak, baina horretarako liburuak irakurri eta museoak bisitatu beharko nituzke. Taberna zuloa gustuko dugunez, Toshacken ironiaz, Rojoren zalapartez eta Rafari sartu zioten golaz hitz egiten dugu.

Kultura gehigarriak mamitsuak dira, baina *Marca* ordu laurdenean irakurtzen da, barre algara batean. Badakizue zer esan zion seme batek aitari: "Aita, sei egunkari erosten dituzu egunero, eta *Marca*rik ez. Sekula ez dut ulertuko".

Futbolarekin haserretu haserretzen gara, baina hurrengo egunean, berriro lehen bezain lagun. Beste kontu batzuekin ez da horrelakorik gertatzen.

Errealitateari atzea emanda, esango didazue hemengo arazorik ez dela konpontzen, arrazoi osoz. Eta bestela?

## *Izarren liga, ala sateliteen liga?*



JON ALTUNA
Kazetaria

Askatasun eza? Langabezia? 'Behi eroak'? Osasuna? Ingurumena? Tratu txarrak? Migrazioa? Eraso sexualak umeei? Hirugarren Munduko gosea? Ez, batzuendako arazo nagusia da Reala edo Osasuna bigarren mailara jaisteko arriskua. Patetikoa.

Futbolak gizartean duen eragina zelakoa den aztertu aurretik, kontuan izan behar da kirol hau zer bihurtu den. Diruak agintzen du aspalditik, eta izan zuen xarma, erromantizismoa, erakargarritasuna, edo?, ez dakit nola deitu, galdu du. Lehen, Euskal Herrian, behintzat, bai, bertako jokalariekin beste talde guztiei, eta milioi asko ordainduta ekartzen zituzten izarrez (edo satelitez) betetako taldeei, irabazten zitzaien. Alferrik galdu da kirola zena.

Izugarria da jokalari bati milaka milioi pezeta ordaintzea, izugarria ikusleak, ordaindu ondoren, uste duela eskubidea daukala iraintzeko edo edozer gauza egiteko. Garrasi egin nahi duenak badu zer aldarrikatu. Jadanik ez da esaten onenak irabaz dezala, ea joko polita ikusten dugun edo garrantsitsua parte hartzea da. Garrantzitsua puntuak dira eta ez da inporta jokalariek min hartzen badute ere. Askok lepo gainean haizez betetako baloi bat dutela dirudi.

Ulertezina da milaka lagun aho zabalik egoten direla jokalariak penaltia sartuko duen edo kale egingo duen zain. Bizitzan inportanteena hori balitz bezala. Sartzen badu, munduko zoriontsuenak dira, eta kale egiten badu, animalia arriskutsuak eta basatiak bihur daitezke.

## Kalterik egiten du futbolak?

Egoera politikoa, laneko kontuak, eguneroko arazoak... Aisialdirako geroago eta denbora luzeagoa behar dugu, egunerokotasunetik eta arazoetatik ihes egiteko. Eta aisialdia era askotara aprobetxa dezakegu: kirola egiten, zinemara, antzerkira edo musika kontzertuetara joaten, lagunekin egoten, mendi edo eski irteerak egiten... Eta futbolean ere bai: egiten edo ikusten.

Futbola, gainera, hizketarako gai ezin hobea da. Asteburuko partiduen gorabeherak, maite dugun taldearen egoera, entrenatzaileen taktikak, derbietako saltsa... Futbolak pasioak mugitzen ditu.

Gaur egungo gizartean eragin handiegia ei du futbolak. Egia da, bai, uneoro gabiltzala futbolaren gainean berba egiten edo partiduak ikusten. Beharbada, gehiegizkoa da komunikabideetan futbolari eskaintzen zaion tartea, baina jendearen jakin-mina pizten duelako izango da. Rocio Juradoren alabari eta telebistan horrenbeste ikusten ditugun sasi artistei eskaintzen zaien arretak gehiago larritzen nau. Futbolariak, azken baten, euren izerdiarekin irabazten dute soldata eta hainbeste diru irabazten badute, norbaitek ordaintzen dielako da. Zeini egiten dio kalte futbolak? Tontotzen gaituela? Ez dut uste, eguneroko arazoak ahazteko eta harremanetarako modu egokia dela iruditzen zait. Besterik ez.

J. GURIDI / Oñati

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *35 orduko lan-astearekin lanpostu gehiago sortuko dira?*

## *Gora eta Behera*

### KOLONBIA: ELKARRIZKETA ETA NEGOZIAZIOA

↑ Bakea helburu, gobernuak eta FARC gerrillari taldeak negoziazioaren eta elkarrizketaren bideari berrekitea adostu dute Kolonbiako arazoari irtenbidea emateko. Noiz ote gure txanda?

### OSAKIDETZA: ZERBITZUEN MURRIZKETA

↓ 1998an ospitale berria inauguratu zen. Amatasun solairuko zerbitzua, bikaina. Orain, ostera, amak momenturo umearekin egon behar duela eta, zerbitzurik ere ia ez da nabari. Hori omen da politikarik zuzenena. Giza harremanak indartzea ere ez litzateke politika txarra izango. Emagin batzuek, behintzat, badakite zer den hori. Ospitale polita badugu, bai, baina ez da nahikoa.



AINTZANE GARDOKI
Kazetaria

## *Koplak*

### *Natura*

Zuhaitzen berde ederrarekin
nahasten zaigu horixka,
pasiotxo bat emate utsez
zapaltzen dugu mendixka.

Mendiko txoritxoen kantua
haize lehun ta goxoa,
nahiz eta kalte egiten zaion
ondoan bizi osoa.

Naturak berak ematen digu
bizitzarako guztia,
ostadarra da gureganako
naturak duen zubia.

Hainbeste gauza egiteko guk
gogoa eta afana,
konturatzea ez dago gaizki
zer dan naturak emana.

Pertsona batek estimatzen du
eman zioten bizitza,
hurrenak estimatu dezaten
guk soilik daukagu giltza.

Lortu nahi dena lortu ezinik
tokatzen bazait hiltzea,
hori gertatzen den egunean
nahi mendian izatea.

ETOR SARASUA

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
SAILETAKO ARDURADUNAK: Marijo Deogracias (Kultura, Denborapasa, Telebista), Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Uxue Zabaleta, Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Koldo Zuazo (Eibar, 1956) irakaslea da Gasteizko Filologia Fakultatean. Bestalde, euskalkien maparen egilea (1998) da eta *Euskararen sendabelarrak* liburua plazaratu berri du. Azken asteotan herriz herri ari da saio horren gaineko hitzaldiak ematen.

ENEKO AZKARATE


EUSKALDUNON EGUNKARIA

# Koldo Zuazo

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

## “Helburua da jendea bere euskararekin gustura eta eroso egotea, ez lotsatzea”

### ONDO IDATZI

**“Hizkuntza da idazlearen lan-tresna, eta idazten hasi aurretik, hizkuntza ondo jakin behar du”**

### KONPLEXUAK BAZTERTU

**“Konplexuak baztertu egin behar ditugu. Horretarako, gure euskara onena bezain ona dela ikusi behar dugu. Hori sinistuko badugu, geure euskara entzun eta ikusi egin behar dugu”**

**Deba arroko euskara bultzatzeko eta finkatzeko Badihardugu elkartea sortu zenuten iazko urte amaieran. Zein da orain arte egindako lana?**

Alde batetik, gure euskara zer dela-eta ez den nahi bezain ona galdetu diogu geure buruari. Gaur egun eskola badugu, irrati, telebista eta aldizkariak baditugu, eta, azken baten, euskara ikasteko eta lantzeko bitarteko ugari ditugu, eta, ostera, erabiltzen dugun euskara ez da espero zen bezain ona. Horrekin batera, beste galdera bat ere egin diogu geure buruari: zer dela-eta gazte jendeak ez du euskara erabiltzen, nahiz eta euskaraz ondo jakin? Zergatik ez daude euskaraz berba egiten gustura eta eroso?

**Eta zein ondoriotara iritsi zarete?**

Batez ere, ikusi dugu gurasoek ez dutela seme-alaben euskara zuzentzen, eta garbi dago ume batek, lehenengo eta behin, etxean ikasi behar duela hizkuntza. Ematen du euskararen transmisioa eten egin dela.

**Gurasoei ez diela euskarak ardura esan nahi du horrek?**

Ez nuke hori esango. Kontua da seme-alaben euskara zuzentzeko geure buruarekin konfiantza izan behar dugula, eta konfiantza horixe da galdu duguna. Gurasoek ikusten dute euren betiko euskara eta gaur egun eskoletan erakusten dena, irrati-telebistetan entzuten dena, eta gure herrietako kaletan ikusten dena oso bestelakoak direla, eta gure betiko euskara txarra dela sinistu dugu. Horrek konplexua sortzen digu, eta seme-alabek edozein trakeskeria esan arren, gurasoak, badaezpada ere, ez dira zuzentzen ausartzen.

**Hori zuzentzeko zer egitea pentsatu duzue?**

Duda barik konplexuak baztertu egin behar ditugu, eta horretarako, gure euskara onena bezain ona dela ikusi behar dugu eta hori sinistuko badugu, geure euskara entzun eta ikusi egin behar dugu. Eskolan bere lekua izan behar du gure euskarak, eta baita irrati, aldizkari eta kaleetan ipintzen diren oharretan ere.

Bestalde, gure berbetak han eta hemen lekua izango badu, lehenengo eta behin egokitu egin behar da. Jakin egin behar dugu gauzak zelan idatzi, zer berba, zer esapide, eta, azken baten, zelako berbeta erabili, eta horri begira arau batzuk osatzen dihardugu.

**Deba arroko euskara batua egin nahi duzuela esan du batek baino gehiagok. Egia da hori, ala ez da zuzena?**

Ez, ez da inondik inora ere zuzena. Guk ez dugu egin nahi Deba arroko berbeta baturik. Ezinezkoa da, gainera, hori. Aramaioko, Mallabiko, Mutrikuko edo Bergarako berbetak oso desberdinak dira, eta ezin dira batu. Bestalde, zertarako nahi dugu Deba arroko batu? Bakoitzak bere herriko berbeta egindа, ez daukagu batak besteari aditzeko oztoporik eta, oztoporik balego, horretarako dago euskara batua. Guk nahi duguna beste gauza bat da: herri bakoitzean bertako berbeta indartzea, jendea bere euskararekin gustura eta eroso egotea, ez lotsatzea, eta seme-alabei erakustea, eta seme-alabek zerbait txarto esaten dutenean, beldurrik barik zuzentzea.

**Esperientzia honen parekorik bada Euskal Herriko beste toki batzuetan?**

Bai, gehienbat Nafarroan eta Bizkaian, baina Gipuzkoan bertan ere badira herriko euskara sendotu nahian dabiltzanak. Dena dela, Deba arroko herri batzuk dira aurreratuen doazenak. Bergaran, Antzuolan, Oñatin eta, batez ere, Eibarren, urrats esanguratsuak egin dira, eta beste herri batzuetan ere hasi da jendea begiak zabaltzen, eta euskararen etorkizuna ziurtatzeko zer edo zer desberdina egin behar dela ikusten.

**Euskara batua egiten ari garenean eta guztiz finkatu barik dagoenean, euskalkiari eustea ez da bazterrak nahastea?**

Bai zera! Alde batetik, euskara batua nahikoa eginda eta gizartean oso sustraituta dago. Alde horretatik ez dago beldurrik. Kontua da lagunartean gaudenean, geure eguneroko kontuen gainean dihardugunean, erdarara jotzen dugula, eta horixe da konpondu behar duguna. Hemengo arazoa ez da batua edo euskalkia. Hemengo arazoa euskara edo erdara da. Euskalkia galtzen bada, erdara da nagusituko dena, eta kitto! Erdarak gazteriaren jardunean hartu duen lekua da euskalkiarekin bete nahi duguna.

Bestalde, euskara batuak baditu bere esparru jakinak, baina ez dauka batere zentzurik mondragoetar bat eta atxabaltar bat elkartzen direnean batuan jardutea. Nire ustez, pedantekeria besterik ez da hori.

**Batua, euskalkia... ez ote da idatzi behar duenarendako nahaspila?**

Idatzi behar duenak gauza bat izan behar du argi: hizkuntza dela idazlearen lan-tresna, eta idazten hasi aurretik, hizkuntza ondo jakin behar duela. Gaur egun idazle askoren artean ez da betetzen oinarrizko baldintza hori, eta, jakina, horretarako konponbideren bat ipini beharko da: ikastaroak antolatu edo beste zer edo zer. Baina kontua da idazleek gaizki idazten badute, irakurleak aterako direla galtzaile.

**Euskalkia ahozkoan erabiltzen da, batez ere. Badu tradiziorik idatzizkoan?**

Bai horixe. Garibai arrasatearrak kantu mordoxka batu zuen XVI. mendean, eta nire gusturako, *Milia Lasturkoaren kantua*, esate baterako, bikaina da, eta geure euskaran dago, Deba arrokoan. Gero, XIX. mendeaz gero, Mogel, Frai Bartolome Madariaga, Astarloa... izan dira gure euskaran idatzi dutenak, ze, azken baten, Deba arroan egiten den berbeta eta Markinaldean eta Durangaldean egiten direnak oso antzekoak dira. Egitura berberekoak.

**Herri aldizkarietan eta gure ibarreko hedabideetan euskalkian ala batuan egin beharko litzateke?**

Mota bitako hedabideak daude: ahozkoak eta idatzizkoak. Telebista eta irratia dira ahozkoak, eta nik neuk, ahozkoetan bertoko berbetari emango nioke lehentasuna. Dena dela, saio batzuetatik besteetara aldea dago. Beharbada albistegietan batua erabil liteke, baina bertoko jendeari egiten zaizkion elkarrizketetan, umeekin eta umeendako, eta gazteekin eta gazteendako egiten diren saioetan eta iragarkietan bertoko euskara erabiliko nuke. Baita herrietako kroniketan ere.

Idatzizko hedabideetan, ostera, batuari leku zabalagoa eman behar zaiolakoan nago. Baina, hori bai, batua esaten denean, bertoko batua esan nahi dut. Hau da, berbak, esapideak eta sintaxia bertokoak izan behar dira. Deba arroan ez dauka zentzurik “etxera noa, nekaturik bainago” esateak. Egokiagoa da “nekatuta nago, eta etxera noa” esatea.

**Badakigu batuzale bazarela, eta baita euskalkizale ere. Medioetan batua bakarrik erabiltzearen aldeko jendeari zer esango zenioke?**

Hara, batuzale eta euskalkizale naiz euskaltzale naizelako, ze batua eta euskalkiak ez dira gauza desberdin bi. Euskararen erregistro bi baino ez dira, eta gutako bakoitzak argi izan behar du noiz eta non, zelan berba egin behar duen. Abade batek meza esaterakoan edo politiko batek hitzaldi bat ematerakoan, era jakin baten berba egin behar du, eta lagunartean gaudenean, beste baten. Eta horixe da euskalkiarekin eta batuarekin gertatzen dena. Nik neuk ETBn euskara batua erabili behar dela uste dut, eta berdin Euskadi Irratian, edo *Euskaldunon Egunkarian*, esate baterako. Baina herri barruko hedabideetan oso bestelakoa da agertzen den informazioa, oso bestelakoak entzuleak eta irakurleak, eta hedabide hauek aurrera egingo badute, hurrekoak, gertukoak izan behar dute. Eta hizkuntzan ere gertutasuna zaindu behar dugu.

# Ulma-Cegasa afizionatu mailako txirrindulari taldea aurkeztu zen zapatuan Oñatin

Taldea erabat berritu da eta joan den denboralditik hiru txirrindularik jarraitzen dute bakarrik

Aurpegi berri asko izan ziren zapatuan Oñatiko Unibertsitatean egin zen Ulma-Cegasa taldearen aurkezpenean. Joan den denboralditik, Eduardo De Miguelek, Imanol Urbietak eta Ander Agirrek bakarrik jarraitzen dute taldean. Gainerako txirrindulariek lehenbiziko urtea egingo dute Ulma-Cegasarekin, Zigor Iriondo eta Eugenio Goikoetxea zuzendarien agindinetara.

Ulma-Cegasak hirugarren denboraldia beteko du aurten afizionatuen mailan. Zapatuko aurkezpenean azaldu zutenez, bi urteko aldiari hasiera eman gura zaio, eta horretarako, taldeak txirrindulari gazteengan du konfiantza. Hain zuzen ere, zortzi txirrindularik debutatuko dute afizionatuetan: Lander Aperribai, Aitor Arrondo, Josu Beitia, Gorka Bermejo, Iñigo Lazkano, Aitor Marcos, Xabier Saralegi eta Francisco Vicente. Taldeak 23 milioi inguruko aurrekontua izango du datozen bi denboraldietarako.



Ulma-Cegasak Lehendakari eta Euskaduna txapelketetako lasterketetan esku hartuko du martxotik aurrera. EDU MENDIBIL

**HEMERETZI TXIRRINDULARI**

Debutatzaileak ez ezik, badira esperientziadun txirrindulariak ere taldean. Horrela, Iberdrolatik datorren Asier Maeztu donostiarrak bosgarren denboraldia egingo du, eta Kelme eta Lycos taldeetan aritu den Daniel Saiz katalanak laugarren urtez korrituko du afizionatuetan. Saizen hitzetan, "Euskal Herrian korritzeko aukera gehiago dago, eta oso pozik jaso nuen Ulma-Cegasaren eskaintza. Bidasoako Itzulira sasoi onean heltzea da nire asmoa". De Miguelek, Juanikorenak, Ormaetxeak, Otxotorenak, Sorreluzek eta Urbietak hirugarren urtea egingo dute afizionatuetan.

## Ulma-Cegasak hirugarren denboraldia beteko du afizionatuen mailan, eta berriro ere txirrindulari gazteen aldeko apustua egin du

**DENBORALDIA ABIAN**

Ulma-Cegasak astebukaeran ekingo dio denboraldiari, Iparraldean. Era berean, martxotik irailera bitartean, Lehendakari eta Euskalduna txapelketak osatuko dituzten probetan izango dira (60 bat lasterketa, denera). Eta horrez gain, afizionatuen mailako itzulietan parte hartzeko asmoa du taldeak: apirilean Arabako Itzulia jokatuko da; maiatzean, Bidasoako Itzulia; eta irailean, denboraldi bukaeran., Goierrikoa.

Eugenio Goikoetxearen zuzendariaren arabera, "gure denboraldia egiteko nahiko txirrindulari ditugu, eta gure mailan denboraldi txukuna egin nahiko genuke, badirelako lasterkari beteranoagoak dituzten taldeak. Denboraldi amaieran egingo dugu urteko laburpena. Ilusioa ez zaigu falta, eta hirugarren urtekoekin sasoi onean heldu gura dugu Bidasoako Itzulira, beste probak baztertu barik, jakina".

EDU MENDIBIL

## Txirrindulariak

Asier Maeztu /Donostia
Daniel Saiz /Bartzelona
Eduardo De Miguel /Donostia
Alex Juanikorena /Donostia
Jokin Ormaetxea /Azkoitia
Xabat Otxotorena /Hernani
Cristian Sorreluz/Zarautz
Imanol Urbieta /Asteasu
Ander Agirre /Bergara
Aitor Garcia /Donostia
Gaizka Gonzalez /Deba
Lander Aperribai /Donostia
Aitor Arrondo /Ataun
Josu Beitia /Gatzaga
Gorka Bermejo /Leitza
Iñigo Lazkano /Mendaro
Aitor Marcos /Hernani
Xabier Saralegi /Beasain
Francisco Vicente /Irun

## Zuzendariak

Eugenio Goikoetxea /Hernani
Zigor Iriondo /Lasarte-Oria

## Masaje emailea

Jose Manuel Lobo /Donostia

## Mekanikoa

Jon Lizarralde /Oñati

## Eugenio Goikoetxea

ZUZENDARIA / HERNANI



Zigor Iriondo lasartearrarekin batera, Eugenio Goikotxeak zuzendari lanak beteko ditu. Hernaniarra, 32 urte ditu eta Kaiku taldeko bigarren zuzendaria izan da zazpi urtez. Inaki Juanikorenaren laguntzailea izan da. Era berean, sei urtez afizionatuen mailan korritu zuen Kaiku taldean bertan, eta 1993an bizikleta utzi zuen.

Ulma-Cegasaren eskaintza erakargarria begitandu zaio: "Talde gaztea da eta txirrindulariek errepidean erakutsi beharko dute zer-nolako maila duten".

***"Talde gaztea daukagu, eta txirrindulariek errepidean erakutsi beharko dute zer- nolako maila duten"***

## Asier Maeztu

TXIRRINDULARIA / DONOSTIA



Joan den denboraldian Iberdrola taldean aritu ondoren, Asier Maeztu 23 urteko donostiarra Ulma-Cegasarekin fitxatu du. Bost denboraldi daramatza afizionatuetan. 1,87 metro eta 78 kilo pisatzen du. Errepidea eta pista tartekatuko ditu. Aurtengo Euskadiko Sei Orduetan seigarren sailkatu zen Mikel Astarlozarekin bikotea osatuz. Erlojukontra ere primeran moldatzen da.

Ilusioz ekin dio denboraldi berriari: "Nire helburuetako bat irailean jokatuko den pistako mundialerako sailkatzea da".

***"Ilusioz gainezka nator Ulma-Cegasa taldera, eta pistako mundialerako sailkatzea dut helburu"***

## Ander Agirre

TXIRRINDULARIA / BERGARA



Bigarren denboraldia beteko du Ander Agirre bergararrak (19 urte) Ulma-Cegasa taldean. Aurretik, Bergarako Lokatza taldean ibilitakoa da. Iaz, bere hitzetan, ondo moldatu zen afizionatuetan: "Lehenengo urtea izateko, uste baino hobeto ibili nintzen". Igotzailea dugu, aldapan gora primeran dabil. 1,70 metro eta 61 kilo pisatzen du. Aurten, Lehendakari eta Euskaduna txapelketetan ondo aritzeko itxaropena du. Dagoeneko, 3.000 kilometrotik gora egin ditu denboraldi berria prestatzeko.

***"Lehen urtea izateko, uste baino hobeto ibili nintzen joan den denboraldian. Ea hobera egiten dugun aurten"***

## Josu Beitia

TXIRRINDULARIA / LEINTZ GATZAGA



Martitzenean 19 urte bete zituen, eta aurten lehendabiziko urtea izango du afizionatuetan. Joan den urtean Fagor taldeko gazte taldean izan zen. Beraren ustez, afizionatuetarako pausoa handia izango da: "Hala esan didate, behintzat. Hasiera batean parte hartzen dudan lasterketak amaitzearekin konformatzen naiz". Aldapan gora baino, ibilbide lauan hobeto dabilela dio.

Manu Goienetxea kirol medikuaren agindinetara entrenatzen da. 1,82 metroko altuera eta 69 kilo ko pisua du.

***"Afizionatuetarako pausoa handia dela esan didate. Lasterketak amaitzearekin konformatzen naiz"***

**Podiuma**

# Imanol Etxeberria | ATHLETICEKO ATEZAINA |

**Athleticekin 120 partidu jokatu ditu Imanol Etxeberria arrasatearrak (27 urte), 1996-97 denboraldian, otsailaren 9an, Madrilen, Rayo Vallecanoren aurka debutatu zuenetik (1-1). Hala ere, titular postua galdu zuen aurreko denboraldia bukatzear zegoela, eta gaur egun, zuri-gorrien hirugarren atezaina da. Ekainean bukatuko zaio Athleticekin duen kontratua.**


Etxeberriari Athleticekin duen kontratua bukatuko zaio ekainean.

**Titular izatetik hirugarren atezain izatera igaro zara denbora laburrean.**

Horrela da, bai. Joan den denboraldiko azken hamar partiduetan entrenatzaileak Lafuente jarri zuen titular postuan, eta ordutik hona, ez dut berriro jokatzerik izan, ez Luis Fernandezekin ezta Txetxu Rojorekin ere. Azken denboraldian, ematen zuen kontratua beste lau urterako berrituko zidatela, baina azkenean taldeak ni saltzea erabaki zuen udan. Ez dakit zergatik heldu naizen egoera honetara, ez dut eta inolako azalpenik jaso. Beharbada, taldeari gehiegizkoa iruditzen zaio hiru atezain izatea, eta ni beste talde bati salduta dirua atera gurako zuen, ez dakit.

**Udan beste talderen batekin fitxatzeko eskaintzarik jaso zenuen?**

Reala, Las Palmas, Celta eta beste hainbat taldek interesa azaldu zuten, baina Athleticek 800 milioi eskatzen zuen, nire klausula 2.000 milioikoa izan arren. Azkenean, ez zen ezertxo ere gauzatu, eta Bilbon geratu behar izan naiz. Egoera ez da atsegina, hirugarren atezaina naizelako eta behin eta berriro deialditik kanpo geratzea nahiko gogorra delako.

> "Taldeak ni saltzea erabaki zuen udan, baina Athleticek 800 milioi eskatzen zituen, eta azkenean ez zen ezer egin"

> "Hirugarren atezaina izanik, zaila da egunero entrenatzeko motibazioa izatea, baina jokatzeko gertu egon behar gara beti"

**Gabonetan ere fitxaketak egiteko tartea zabaldu zen...**

Tenerife eta Numancia ni fitxatzeko asmotan etorri ziren, baina Athleticen jarrera ikusita, atzera egin zuten. Badirudi Athleticek salgai jarri nauela dirua lortzeko, baina kontuan izan behar dugu ekainean kontratua bukatzen dudala, eta orduan libre izango naizela gura dudan taldera joateko.

**Talderen batekin ezer adostu duzu?**

Denboraldi amaieran, Mikel Egurenek, nire ordezkariak, eta biok mahai gainean dauden eskaintzak ondo aztertu eta erabakia hartuko dugu. Orduan hasiko naiz mugitzen eta espero dezagun eskaintza bat baino gehiago izatea, kontuan izanda udan hainbat talde interesatu zirela nirekin. Ekainean, gainera, ez dute ordaindu beharrik izango ni fitxatzeko.

**Reala etortzekotan?**

Oso zaila da jakitea bihar zer gertatuko den, eta futbolean ere gauzak erabat aldatzen dira egun batetik bestera. Dena dela, gipuzkoarra naiz eta ilusio handia egingo lidake Realarekin fitxatzeak. Baina, hori guztia denboraldi amaieran aztertuko dugu.

**Orain, taldetik kanpo egonda, futbolaren alderdi ez hain atsegina bizi duzu.**

Gogorra da, bai. Egunkarietan eta telebistan jeneralean gauza onak nabarmentzen dituzte, baina futbolak ere baditu alde ilunak. Ehundik gora partidu jarraian jokatu eta gero, taldekideak harmailetatik ikustea gogorra da. Zailena da, beharbada, egunero entrenatzeko motibazioari eustea, baina beti ere, jokatzeko gertu egon behar zara, lesio batengatik edo zigor batengatik deialdian sartzeko aukera dagoelako. Dena dela, nahiz eta egoera txarrean egon, azken hilabeteotan gauza asko ikasi ditut.

**Euskal taldeen egoera zelan ikusten duzu?**

Realak eta Osasunak zail dute zulotik irtetea, eta Alavesi eta guri bizpahiru partidu jarraian irabaztea falta zaigu UEFArako borrokan sartzeko.

EDU MENDIBIL

---

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Ander Landaluze
## Trialzalea


Ander Landaluze trialeko aitzindarietako bat izan genuen.

**1978an eta 1979an trialeko Euskal-Nafar txapelketa irabazi zuen. Mendiko zeharkaldien Euskadiko txapelduna da beteranoen mailan**

Musakolako Garratz baserrikoa, 15 urterekin eskola utzi eta aitaren harategian hasi zen lanean. Lehen motoa 20 urterekin erosi zuen, 250 $cm^3$-ko Bultaco Alpina lurrorotakoa, hain zuzen ere. Handik urtebetera lehiatzen hasi zen trialeko probetan, "kirol berria zen gurean eta lehenbiziko mendiko motoak ikusten hasi ziren garai hartan. Errepideko motoak mendian ibiltzeko ere egokitzen genituen, suspentsioa eta platoak jarriz, eta horrela hasi ginen. Nik baserri inguruan entrenatzen nintzen, batik bat, ia egunero, pare bat orduz". Handik gutxira, trialean aritzeko Bultaco Sherpa bat erosi zuen. Zalantzarik gabe, gure artean trialeko aitzindarietako bat izan zen Landaluze 1970eko hamarkadan. Auñamendi entziklopediak ere berataz aipamena dator.

1978an eta 1979an Euskal-Nafar txapelketa irabazi zuen. 1978an 43 trial probatan esku hartu zuen, eta horietatik, 33 irabazi zituen. Estatuan jokatutako trial probetan ibilitakoa da, eta bi urtez Bultaco etxearekin kontratua izan zuen. Bultacok 1980. urte inguruan utzi zion motoak egiteari, eta handik aurrera Montesa, Ossa edo Fantic marka italiarreko motoak gidatu zituen. 1979an, Espainiako txapelketan, 10. tokian sailkatu zen.

Arrasateko Motozale Elkarteko kidea da. Joan den urtean Euskadiko enduro (mendiko zeharkaldiak) txapelketa irabazi zuen beteranoen mailan, KTM moto batekin. Jokatutako bost probetan garaipenik lortzerik izan ez zuen arren, erregularrena izan zen. Berak esan digunez, "azkenengo triala 1998an korritu nuen, Udalan. Orain mendiko zeharkaldiak egiten ditut. Domekero hiru bat orduz ibiltzen naiz, 100 bat km. eginez. Motoa beti gustatu izan zait ". /E. M.

> *"Triala kirol berria zen gurean, eta lehenbiziko mendiko motoak ikusten hasi ziren 1970eko hamarkadan. Ni baserri inguruan entrenatzen nintzen"*


Ander Landaluze • Arrasate • 1953

---



## Nire Pronostikoa

LUIS MARI GUTIERREZ/ Bergarako KEko pilota saileko arduraduna

Pilotako eskuz binakako txapelketako finalera heltzeko bikote faboritoak Alustiza-Beloki eta Titin-Zezeaga dira, nire ustez. Beloki bikain jokatzen ari da, eta Alustiza, beti bezain ondo. Unanueri eta Ruizi erraz irabaziko dietela uste dut. Bestalde, Logroñon jokatzean, Titinek eta Zezeagak ez lukete arazorik izan behar Olaizola eta Goñiri irabazteko. Futbolean, Athletic ez dabil batere ondo etxetik kanpo, eta Mallorcan ere galdu egingo duela uste dut. Realak behar-beharrezkoa du irabaztea, Osasuna, Numancia eta Racing atzean lagatzeko.

**Astebukaera honetako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Alustiza-Beloki | 22 | Unanue-Ruiz | 11 |
| B/ | Titin III.a-Zezeaga | 22 | Olaizola I.a-Goñi III.a | 15 |
| C/ | Reala | 3 | Espanyol | 1 |
| D/ | Mallorca | 3 | Athletic | 1 |


MULTIOPTICAS
LENTILAK
KANPAINA
BERRIA
Multi lens
LENTES DE CONTACTO DE REEMPLAZO MENSUAL
LENTES DE CONTACTO PARA SUBSTITUIÇÃO MENSAL
Multi bio plus
SOLUCIÓN ÚNICA
LIMPIA
ACLARA
LUBRICA
CONSERVA
DESINFECTA
Para todo tipo de lentes de contacto blandas
INCLUYE ESTUCHE DE LENTES DESECHABLE
360 ml
ELIMINA LAS PROTEINAS
PACK-a: 2 LENTE KAXA + LIKIDOAK
6 HILABETERAKO
14.900 PTA.
3 opari aukeran
Motxila
Jertxea
Koloretako lente parea
orlegia
orlegi amazoniarra
orlegi argia
orlegi turkesa
eztia
grisa
urdina
topaziar urdina
85 pta. baino gutxiagogatik
EGUNERO LENTILA BERRIEKIN
MULTIOPTICAS
BERGARA
ARRASATE
ORDIZIA
EIBAR
ERRENTERIA
R.P.S. Nº 164/99

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko otsailaren 16a

Kultura eta Aisialdia

Otsailaren 16tik 23ra









# Manu Muniategiandikoetxea



## Arco azokan

Espainiako arte erakusketa-azokarik garrantzitsuena da Madrileko ARCO. Arte Garaikidearen Nazioarteko Azokak eguaztenean ireki zituen ateak eta astelehenera arte egongo da zabalik. Aurten, hogeigarren aldia du azokak, eta mundu osoko 1.500 artistaren lanak izango dira ikusgai, 274 galeriatan banatuta. Manu Muniategiandikoetxea bergararra (Gure Artea lehiaketako azken aldian saritua) izango da Debagoieneko ordezkari bakarra ARCOn. Bilboko Windsor Kulturgintzaren saltokian ikusi ahal izango dira bere pintura lanak. Herreran duen pintura estudioan elkartu gara, eta bere lanaren gainean egin dugu berba. /E. AZKARATE /14

GOIO ARANA / ARGAZKIAK: ENEKO AZKARATE

Artea | ARCO Arte Garaikidearen Nazioarteko Azoka / Madril

# Manu Muniategiandikoetxearen pinturak

AZKEN SEI URTEOTAN BEZALA, AURTEN ERE ARCON DA, ORAINGOAN BILBOKO WINDSOR KULTURGINTZAREN BITARTEZ

**Manu Muniategiandikoetxeak (Bergara, 1966) seigarren aldiz erakusten ditu bere lanak ARCOn. Aurreko urteetan Donostiako DV Galeriak eroan izan du erakusketa azokara. Aurten, ordea, bere betiko galeristarekin bat etorri ez denez, Bilboko Windsor Kulturgintzaren tokian izango da.**

Jose Ramon Amondarain pintore andoaindarrarekin batera Donostiako Herrera auzoan duen estudioko ateak zabaldu dizkigu Manuk, eta bere lanaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Kasetari play eman eta berba jarioa grabatu diogu: "Arte liburuetako irudiak, pelikuletako fotogramak, erakusketetan ateratako argazkiak, hau da, arte-lanak dira, oro har, nire pintura lanen oinarria edo inspirazio iturria. Esaterako, Stanley Kubrick-en *2001 una odisea del espacio* filmetik ateratako ideiekin margo erakusketa egin nuen iaz Windsor-en, lehen, Popova edo Bruce Nauman artisten lanetan oinarritutako margolanak egin nituen bezala. Irudi batzuk hartu eta nire erara eraldatu. Gustuko ditudan artisten lanak, bizitza, izaera... ikertzen saiatzen naiz, maitemindu egiten naiz, eta heltzen da momentu bat ia guztia dakidala euretaz. Orduan, laga eta beste zerbaitetan hasten naiz. Jeneralean, eskultura egileen eta argazkilarien lanak interesatzen zaizkit. Azkenaldian, ordea, Martin Kippenberger interesatzen zait, batez ere. Artista polifazetikoa zen, nahiz eta askok terroristatzat jo zuten, dena muturreraino eroaten zuelako. Orain dela urte batzuk hil zen, 42 urterekin".

**Zer edo zer adierazi nahi duzu margolanekin?**

Ez. Arte-lan hutsa da nirea, pintorea naiz. Ez diot zentzu berezirik eman nahi nire lanei, ez, behintzat, neu konturatuta. Hala ere, ez naiz oso lasterra pintatzen; zera esan nahi dut, hausnarketa prozesu sakon baten ondorioa direla nire lanak. Azkenaldian, egitura geometrikoak landu ditut, horrekin nengoelako gusturen, baina une honetan aldaketa prozesuan murgilduta nago, eta horren emaitza urtebete barru-edo ikusiko dut. Itota ikusten nuen neure burua, aldaketa beharrean. Dagoeneko, hasi naiz marrazki batzuk egiten. Zelabait esatearren, egitura sinple edo minimalagoak erabili ditut orain arte, eta kolore aldetik ere, bakarreko lanak. Orain, beste kontu batzuetan nabil. Jendea ohituta zegoen egitura geometrikoko lanak ikustera, estilo honekin lotzen ninduten. Hori aldatu egin nahi dut orain.



Manu Muniategiandikoetxea, Donostiako estudioan.

ENEKO AZKARATE

**Aurten, zer erakusten duzu ARCOn?**

Lau margolan handi eramango ditut Madrilera, baina, gero, bi erakutsiko ditugu. Horrez gain, beste hainbat marrazki, formatu txikiagokoak. Jeneralean, egurra eta oihala erabiltzen ditut, eta baita kartulinak ere, marrazkiak egiteko.

**Kritikoek-eta artearen zein ildotan kokatzen zaituzte?**

Ismoetan ez, behintzat. Askok geometrikotzat jo dute nire lana, baina ez nago horrekin ados. Nik pintatu egiten dut, eta kitto. Neuk ere ez dakit non kokatzen dudan nire lana, eta espero dut ez jakitea denbora askoan. Bukaera izango litzateke, lurperatzea. Ez dut ildo edo estilo bakarrean sakondu nahi. Aldaketa beharrezkoa da. Beti nabil zeozeren bila. Seguruen, ez dut bide komertzialena aukeratu. Betikoa egiten baduzu, hasi aurretik badakizu zein izango den emaitza, eta ez dut hori nahi.

**Margotzeaz gain, eskolak ematen dituzu Zestoan.**

Guggenheim museoaren egitasmo berezi bat da. Estatu Batuetan, bigarren mundu gerraren ostean, eskola publikoetatik plastika eta artearen gaineko ikasgaiak ezabatu zituen gobernuak, dirua aurreratzearren. Protesta egiteko artista plastikoak eskoletara eroaten hasi zen Guggenheim, artisten eta ikasleen arteko harremanak sakontze aldera. Ideia hori hartu eta egitasmo berezi bat landu dute Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako bina eskolatan. Zestoan nabil ni. Artearen eta beste hainbat ikasgairen artean, natura zientziak, esaterako, egon daitezkeen harremanak azaltzen dizkiet umeei.

**Ezinbestekoa da ARCOra joatea?**

Artearen merkatuan zaudela erakusteko, ARCOra joatea beharrezkoa dela esango nuke. Hala ere, egia da badagoela beste arte mota bat galerietatik urrun dagoena. Hori onartu egin behar da. Baina merkatuan egon nahi baduzu, galeriekin egon behar zara, eta ARCO galeria askoren lanak biltzen dituen arte azoka handia da. Jose Ramon Amondarain eta Francisco Ruiz de Infante dira Windsor galeriako izarrak, zelabait esatearren, eta gero beste hiru artistaren lanak ere, tartean neureak, eroan dituzte azokara. Aurten, batez ere, harremanak egitera noa ARCOra. Berlineko arte erakusketan ere izan naiz azken urteotan. Alemania, baina, merkatu zailagoa da guretako. Artea konplikatua da. Arteak herri bat eta bere auzoak ditu. Herriaren erdian biziz gero, ezaguna izango zara. Aldiz, baserrian bizi bazara eta herrian agertzen ez bazara, jendeak ez zaitu ezagutuko. Ezaguna izateko herriko plazan egon behar zara, eta horra heltzea zaila da. Ez naiz kalitateari buruz ari. Zure obretan dirua inbertitu duena ahaleginduko da zure estatusari eusten.

**Aurrera begira, zer duzu esku artean?**

Orain, sexuaren eta inguruko serigrafia batzuk egin behar ditut liburu baterako irudi pornografikoak. Enkargu bat da.

ENEKO AZKARATE

"Egitura sinpleak erabili ditut orain arte, eta kolore bakarreko lanak. Orain, beste kontu batzuetan nabil"

"Askok geometrikotzat jo dute nire lana, baina ez nago horrekin ados. Nik pintatu egiten dut, eta kitto"

"Arteak herri bat eta bere auzoak ditu. Herriaren erdian biziz gero, ezaguna izango zara"

"Artearen merkatuan zaudela erakusteko, ARCOra joatea beharrezkoa dela esango nuke"

Kronika | **Mikelerrazkin-HF** zuzenean Bergarako Pol-Pol tabernan

# Musika lasaia egonezinendako

**Ordua:** 19:15 Sarrera: tamalez, doan. **Non:** Bergarako Pol-Pol tabernan (Bergara) **Zenbat lagun:** 80 lagun inguru




**Azken diskoan lagun izan dituen musikariekin batera aritu zen Errazkin.** IBAN ARANTZABAL

**Jende dezente batu zen Pol-Pol tabernan Mikel Errazkinen uzta jasotzeko. Uzta horretatik dozena bat kantu erakutsi zizkigun, eta kaleratuak dituen bi diskoko kantuak eman zituen Pol-Pol poteoko tabernan.**

Taulan, bost musikari: baterian, Aitor Etxaniz; gitarra akustikoan, Xabi Lopez; baxuan, Txema Garces mitikoa; ahotsean, Nieves Ariila; eta zelan ez, Mikel Errazkin, teklatu eta programazioetan. Diskoan grabatu zutenak alboan zituen, eta ikasia zuten nonbait kantu zerrenda, ez dabiltza-eta taldekide gehienak alferrik sei urtean elkarrekin. Hamabi kantu egin zituzten, eta ez zen gehiagorako eskaririk ere egon. Egia esan, ez zegoen girorik egokiena, eta teknikoki ere ez zegoen oso prestatua emanaldia, sonoritate eskasa egon zen eta.

Taberna askotan, zaratatsuagoak diren taldeak ikustera ohitua dago jendea, eta jendearen zurrumurruek gutxiago eragiten dute, behintzat. Domekan ikusi ahal izan genuen pop akustikoak, hala ere, bestelako aretoak eskatzen ditu, sonoritatea zaintzeko egokiagoak. Kontzertua ikustera doan jendeak ez dauka zertan albokoaren asteburuko abentura guztiak entzun...

Bestalde, normala ere iruditzen zait, izan ere, taberna horretan domekero kafea edo dena delakoa hartzen duen espazioan bizitzaren gaineko hitzez osatutako pop akustikoa oinarri duen emanaldi bat jartzen da-eta; bezeroari gusta dakioke, edo ez.

Taldekoek oso profesional egin zuten lana. Baxu eta perkusio notekin hasi zuten kontzertua, kantu gordin eta soziala abestuz. *Amodio bat ezkutatua* zen kantua eta hurrengoa *Lehenengo geltokia*. *Sex & Cigaretess* izan zen hirugarrena, eta gure usteak pikutara joan ziren. Uste genuen soinua neurtuko zela hirugarren kantutik aurrera, baina ez zen hala izan. Dudan egon ginen kantuan ziharduena eta diskokoa pertsona bera izango ote zen ere, pena, oso ondo kantatzen du-eta Nieves Ariilak. Mikro gutxi izatearen errua agian? Pentsatzen dut eurek barrutik hobeto entzungo zutela, bestela...

**Domekan ikusi ahal izan genuen pop akustikoak, hala ere, bestelako aretoak eskatzen ditu, sonoritatea zaintzeko egokiagoak. Kontzertua ikustera doan jendeak ez dauka zertan albokoaren asteburuko abentura guztiak entzun...**

Kantu ezagunak ere jo zituzten: esaterako, laugarrena, edo azkenerako utzi zuten *Ilargi non zaude* abestia. Tartean bertsioak ere egon ziren, Nancy Griffith-en *Speed of the sound* kasu. Kantu gehienak HF diskokoak izan ziren: *Bilutsik*, *Kristalez inguratuta*, *La madre de Fabian*... eta faltan, bertsio bat, kontzertua borobiltzeko: *Ene begiek*.

IBAN ARANTZABAL

## Nire aukera

### Patxi Hipolito
### Oñatiko Gaztelekuko arduraduna



Zuzena ez den sisteman parte ez hartzea proposatzen du Thoreau-k testu honetan. Liburua irakurri ondoren, hauxe idatzi zuen Luther King-ek: "Gizartean ona denaren alde kooperatzea betebeharrekoa den moduan, txarra denaren alde ez kooperatzea ere betebehar etikoa dela erakutsi zidan liburu honek. Nire ustez, inork ez du behin ere Henry D. Thoreau-k bezain ondo ideia hori trasmititu. Protesta kreatiboaren herentzia jaso dugu bere iskribu eta lekukotasun pertsonalari esker".

1995ean Iralka taldeak argitaraturiko liburu hau, La cizaña baja al Ágora bildumaren bigarren zenbakia da.

### 'SOBRE EL DEBER DE LA DESOBEDIENCIA CIVIL' Henry D. Thoreau




IBAN ARANTZABAL

## Kaleratu berriak

**Iban Arantzabal**

LIBURUA | *Idatzi solteak*




**HITZ IBILTARIAK**
Eduardo Galeano
Txalaparta argitaletxea
325 orrialde

Amodio eta gerrako gauegunak, *Latinoamerikako zain irekiak*, *Suaren oroitza trilogia*... liburuez gain, artikulu bilduma pilo bat ere baditu. Euskaraz, ostera, hau da lehenengo aldia Galeanoren liburu bat argitaratzen dela. Liburuak 322 kapitulu ditu, eta horrelakoak irakur daitezke: "Gauzen jabeen jabe dira gauzak, eta nik ez dut aurkitzen nire aurpegia ispiluan. Ez diodana esaten dut. Banago, baina ez naiz. Eta ez noan lekura naraman trenera igotzen naiz, nitaz erbesteratutako herrialde batera".

LIBURUA | *Nobela*




**PIANO GAINEAN GOSALTZEN**
Harkaitz Cano
Erein argitaletxea
187 orrialde

New Yorken izan zeneko oroitzapenak kontatzen dizkigu Harkaitz Canok eta fikzioa errealitatean txertatu du bertan bizitakoak azaltzeko. Bizi ziren etxean bazegoen piano bat, eta ezer gutxi gehiago; piano horren gainean idatzi du.

Paul Austerren aipu batekin hasten da liburua: "Inork ez du fikzio baten parte izan nahi; eta are gutxiago oraindik, fikzio hori benetakoa denean" dio, eta egilearen hitzetan, hor dago gakoa. Kazeta kroniken zale direnendako aproposa.

DISKOA | *Rocka*




**FUNDIZIYUE**
Gaztelupeko Hotsak
12 kantu

Urola bailaratik dator boskote hau, Urrestillatik, hain zuzen ere. 1996an beste hiru talderekin batera argitaratu zuten konpaktu autofinantzatua, eta orduko kantuak bide zirela, Euskadi Gazteako maketa lehiaketa irabazi zuten. Orain, forma eleganteagoekin, sendotasunez eta melodia eraginkorrekin datozkigu Fundiziyue-koak. Itoizen antza hartzen ei diote askok, eta eurek ere ez dute hori ezkutatzen. Pop-rock indartsua da euren proposamena, doinu garbienetatik soinu zikin eta lasterretaraino.

# Otsaila: 16-23

**Edu Mendibil** | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**OÑATI**
> **Txalo** taldearen *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona* antzezlana egubakoitzean, hilak 16, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

**ESKORIATZA**
> **IX. Antzerki Topaketak** Kurtzebarri eskolan, otsailaren 19tik 22ra, 18:00etan. DBHko 4. mailako ikasleen ardurapean.

**AZKOITIA**
> **Txalo** taldearen *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona* antzezlana zapatuan, hilak 17, Baztartxo antzokian, 22:00etan.

**ELORRIO**
> **Teatro meridional** taldearen *Qfwfq. Una historia del universo* egubakoitzean, hilak 23, Arriola aretoan, 22:30ean.

## Musika

**ARETXABALETA**
> **Alehop** taldea zapatuan, hilak 17, gaztetxean, 23:00etan. Jarraian **Cheese** eta **Prest** disko jartzaileen saioa izango da gaztetxean bertan.

**BERGARA**
> **Amalda** abesbatzaren emanaldia egubakoitzean, hilak 16, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.
> **Lausardi Koru Sinfonikoaren** emanaldia zapatuan, hilak 17, San Pedro parrokian, 20:00etan.
> **Giroux** eta **Mahjun** egubakoitzean, hilak 16, Jam aretoan, 22:00etan.
> **HammerFall, Virgin Steele** eta **Freedom Call** taldeak zapatuan, hilak 17, Jam aretoan, 20:00etan.
> **Primal Fer, Children of Bodom** eta **Sacred Steel** eguenean, hilak 22, Jam aretoan, 21:00etan.

**ELGETA**
> **Big Lie Tour. Golpe de estado** zapatuan, hilak 17, gaztetxean, 23:00etan. Aurretik, **poesia emanaldia** izango da. Kontzertuaren ondoren, **Kir Rin** disko jartzailea arituko da. Bestalde, arratsaldean fanzineak eta graffitiak erakutsiko dira, eta 17:00etatik aurrera film laburrak eskainiko dira gaztetxean.

**ELORRIO**
> **Arriolako III. Flamenco emanaldiak. Increpacion danza** taldearen *d.C. (annus Domini)* egubakoitzean, hilak 16, Arriola aretoan, 22:30ean. Zapatuan, hilak 17, **Merenguito**, 23:00etan.

## Erakusketak

**ARRASATE**
> **Jose Zuñiaurre** margolari bizkaitarraren lanak Toki-Eder kafetegian, otsailaren bukaera arte.
> **Iñaki Bruñaren** margolan eta eskultura erakusketa Udalako Larrinetxe jatetxean, martxoa bitartean.

**BERGARA**
> **Josu Okinaren** margo erakusketa kultura etxeko erakustokian, domeka arte.
> **Beatriz Perez** eta **Miren Etxeberriaren** olioak Nahikari tabernan. Biak ere Edurne Erañaren ikasleak dira.

**OÑATI**
> *Euskal Herria eta dinosauruak* otsailaren 19tik martxoaren 4ra bitartean Oñatiko Natura eskolan, Olakua auzoan. Aste barruan, 18:00etatik 20:30era, eta zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.
> *Natura argazkitan* otsailaren 19tik 25era Olakua auzoko Bidaurreta dorretxean. Aste barruan, 18:00etatik 20:30era, eta zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**DURANGO**
> **Juan Jose Altuna Akizu** bergararraren margolan erakusketa Durangoko Arte eta Historia museoan (San Agustinalde, 16), otsailaren 25a arte.

**BILBO**
> **Bingen De Pedro** bergarararen margolan erakusketa Bilboko Berta Belaza galerian (Arrikibar plaza, 5), otsailaren 23a arte.

## Lehiaketak

**ARRASATE**
> **Arte plastikoen III. lehiaketa** deitu du Arrasateko Gure Leku tabernak. 125.000 pezetako saria emango da. Lanak ondoko helbidera bidali beharko dira, otsailaren 28a baino lehen: Gure Leku taberna. Zarugalde, 17-behea. 20500. Arrasate.
> **Motorren III. kontzentrazioko marrazki lehiaketa,** Arrasateko Motozale Elkarteak deituta. Beharrezkoa izango da asto eta moto bat agertzea marrazkietan. Marrazkiak elkartearen egoitzan aurkeztu beharko dira martxoaren 2a baino lehen. Irabazleak 10.000 pezeta eta opariak jasoko ditu.

**BERGARA**
> **XVI. literatura lehiaketa.** Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek esku har dezake. Adinaren arabera, bost talde egingo dira. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dira. Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 25ean bukatuko da, eta sariak ekainaren 9an banatuko dira. Argibide gehiago udaleko euskara zerbitzuan, 943 77 91 66 zenbakian.

## Ikastaroak

**ARETXABALETA**
> **Areto dantzen ikastaroa,** Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatuta. Egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izenematea eta argibideak Loramendi elkartean edo 943 77 09 70 telefonoan.
> **Eskulan eta bainika ikastaroak,** Loramendi euskara elkarteak antolatuta.Eskulan ikastaroa martitzenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Bainikakoa, ostera, eguaztenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea Loramendi elkartean bertan.
> **Panpinak egiteko ikastaroa** otsailaren 21etik aurrera. Eguaztenetan emango da, bi txandatan, 09:00etatik 11:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean.

**ARRASATE**
> *Masaje bateratua* ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.
> **Alboka** eta **txalaparta** ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak. Albokakoa San Juanak bitartean emango da, zapatuetan, Arrasate Musikalen, goizez. Txalapartakoa, aldiz, astelehen eta egubakoitzetan izango da, Musakolako saloian, arratsaldez. Argibide gehiago 943 77 00 65 telefono zenbakian.
> **Literatura tailerra** martxoaren 15etik apirilaren 5era, eguenetan, Monterronen, 18:00etatik 20:30era. Irakaslea Jon Alonso izango da. Izen-ematea: 3.000 pezeta (2.000 pezeta ikasle eta langabetuendako). Argibideak 943 77 00 65 telefonoan.
> **Euskal dantzen** ikastaroa. 10 urtetik gorakoendako. Martxoaren 2tik San Juanak bitartean, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30era. Matrikula: 1.000 pezeta. Argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.
> **Zeramika ikastaroa,** Loixe elkarteak antolatuta, otsailaren 20tik ekainaren 21era, martitzen eta eguenetan, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea eta argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

## Deiak

**ARRASATE**
> **El Salvadorri laguntza** emateko, kontua zabaldu du Medicus Mundi erakundeak: BSCH 0049 0001 59 2810016616.
> **Indiarako laguntza** emateko, kontuak zabaldu ditu Medicus Mundi erakundeak Euskadiko Kutxan, Kutxan eta BSCH bankuetxean.
> **Hitzaldia. Jonan Fernandez Elkarriko bozeramaileak** bakeko konferentziaren gaineko hitzaldia emango du martitzenean, hilak 20, Monterronen, 19:30ean.
> *El reto de la adolescencia* izenburuko hitzaldia eguaztenean, hilak 21, Arrasateko institutuan, 18:30ean. Hizlaria: Iñaki Toledo psikologoa.
> **Mendi irteera** otsailaren 25ean: Areta-Kamaraka-Ganekogorta. Izen-ematea, otsailaren 20tik 22ra, Arrasateko Besaide egoitzan, 19:30etik 20:30era.

**ARETXABALETA**
> **Bertso afaria** Unai Iturriaga eta Arkaitz Estiballez bertsolariekin hilaren 17an, Urbaltz elkartean, 21:15ean. Txartelak Arlutzen eta Urbaltzen salgai hilaren 11 arte.
> **Korrika** antolatzeko, herriko elkarteei zuzendutako batzarra izango da eguaztenean, hilak 21,



JARDUNALDIAK

### OÑATIKO INGURUMEN ASTEA

Oñatiko Natura eskolak antolatuta, datorren astean hainbat hitzaldi eta erakusketa izango dira. Astelehenetik eguaztenera hitzaldiak izango dira Natura eskolan, 19:00etan, Jose Angel Torres, Alberto Frias eta Pello Zabalaren eskutik. Egubakoitzean, hilak 23, Bardeen gaineko mahai ingurua izango da. Zuhaitzak landatuko dituzte hilaren 25ean, eta, era berean, Natura eskolan eta Bidaurreta dorretxean erakusketak izango dira.

**Noiz:** Otsailaren 19tik 25a arte. **Tokia:** Oñatiko Natura eskolan.



## Margo erakusketa

Josu Okinaren margolanak
Bergarako Kultura Etxean

Otsailaren 18a arte

Loramendi elkartean (udaletxe zaharrean), 19:00etan.

### BERGARA

> **Bertso afaria** Igor Elortza eta Jesus Mari Irazu bertsolariekin zapatuan, hilak 17, Artatse elkartean, 21:00etan. Txartelak Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan. Prezioa: 3.000 pezeta (1.500 ikasle eta langabetuendako).

> **Bergarako gaztetxean** zinema emanaldiak eguaztenero, 21:30ean.

> ***Nola lagundu gure seme-alaben inteligentzia eta konfidantza garatzen*** hitzaldia eguaztenean, hilak 21, kultura etxean, 18:30ean. Hizlaria Rafael Cristobal mediku psikiatra izango da. San Martin ikastetxeak antolatuta.

> ***Zer da gaixotasuna eta zertarako balio du?*** topaketa eguaztenean, hilak 21, kulura etxean, 18:00etan, Sumendi osasunaren autogestiorako elkartearen eskutik. Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatuta.

> **Mendi irteera.** Alpino Gorlak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak hilaren 18rako Aulestia-Ereñora mendi irteera iragarri dute. Irteera 07:30ean egingo da frontoitik. Txartelak tabernan salgai.

### OÑATI

> **Natura eskolak antolatutako hitzaldiak.** Astelehenean, hilak 19, Jose Angel Torres Aranzadi zientzia elkarteko kideak *Euskal Herria eta dinosauruak* izenburuko hitzaldia emango du. Martitzenean, hilak 20, Alberto Frias Eguzki talde ekologistako kideak *Geroa lurretik hasi* gaiaiaz jardungo du, eta eguaztenean, hilak 21, *Naturaren mintzoa* hitzaldia emango du Pello Zabala Arantzazuko fantziskotarrak. Datorren egubakoitzean, hilak 23, *Bardeak: parke naturala, biosferako erreserba eta militarren tiro-poligonoa* aztertuko dute Iñigo Petri Gurelur-eko kideak eta Luzio Tabar-ek. Hitzaldi guztiak 19:00etan izango dira.

# Zinema

**ARRASATE / ALAI ZINEMA**

***Límite vertical***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**AMAIA**

***The acid house***
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**BERGARA / NOVEDADES**

***Los padres de ella***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***Ed Gein***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**OÑATI / SANTANA**

***Operación Reno***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Dinosaurio***
Domeka: 17:00, 19:30.

***El viento nos llevará***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**EIBAR**

**UNZAGA**

***El protegido***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

***Scary movie***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00,19:30.
Domeka: 17:00,19:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:30.

***Operación Reno***
Zapatua: 22:15.
Domeka: 22:15.
Astelehena: 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 22:15.

**ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA**

***Scary movie***
Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

***Souh park***
Zapatua, ik. eguna: 19:30.

***Orfeu***
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**ELORRIO / ARRIOLA**

***Los padres de ella***
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

***The grinch***
Domeka: 17:00.

***Así es la vida***
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**AZKOITIA / BAZTARTXO**

***Operación Reno***
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

***Dinosaurio***
Domeka: 17:15.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

***La leyenda de Bagger Vance***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Casi famosos***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30, 22:30.

***Faust: La venganza está en la sangre***
Egunero: 17:30.

***102 dálmatas***
Egubakoitzz eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:15.
Domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzena: 17:30, 22:30.
Eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30, 22:30.

***Pan y rosas***
Egubakoita eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Límite vertical***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Infiel***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 23:30.
Domekatik eguenera: 20:00.

***Traffic***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 19:45, 22:45.

***Las vírgenes suicidas***
Martitzena (Emakumearen zikloa): 20:00.

***Nosotras***
Eguena (Emakumearen zikloa): 20:00.

***Las tres noches de Eva***
Eguena (Montehermoso zikloa): 19:45.

**MIKELDI ZINEMAK**

***Y decirte alguna estupidez, por ejemplo, te quiero***
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Náufrago***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:00, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Billy Elliot***
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Cadena de favores***
Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 1:15.
Domeka: 22:45.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

***La leyenda de Bagger Vance***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Sexo, pudor y lágrimas***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***102 dálmatas***
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15, 20:30.
Astebarruan: 17:30, 20:00.

***In the mood for love (Deseando amar)***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Algo que contar***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***El gran marciano***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua : 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka : 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMA**

***La bendición***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**SAMANIEGO**

***Erin Brockovich***
Egunero: 19:45, 22:30.

***Adela***
Egunero: 17:00.

***Ni uno menos***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Pan y rosas*** *(euskaraz)*
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***El bola***
Egunero: 19:45, 22:30.

***Al diablo con el diablo***
Egunero: 17:00.




**LOS PADRES DE ELLA**
**ZUZENDARIA: JAY ROACH. AKTOREAK: ROBERT DE NIRO, BEN STILLER, TERI POLO.**
**ADIN GUZTIETARAKO.**
Okerrera egin dezakeen guztiak okerrera egingo du. *Greg Focker* (Ben Stiller) erizainak hori baieztatzeko arrazoiak baditu. *Pam*i (Teri Polo) berarekin ezkontzeko eskatzear dagoenean, New Yorkera joan beharko dira, *Pam*en ahizparen ezkontzera. Eta hasiera baten, behintzat, *Greg* ez da *Pam*en gurasoen begikoa izango. Robert De Nirok protagonizatutako komedia honek harrera beroa jaso du ikusleriaren partetik.

**LIMITE VERTICAL**
**ZUZENDARIAK: MARTIN CAMPBELL. AKTOREAK: CHRIS O'DONNELL, BILL PAXTON, ISABELLA SCORUPCO.**
**ADIN GUZTIETARAKO.**
Efektu berezi aipagarriak ei dituen filma. K2 mendia igotzeko saiakeran, *Annie* harrapatuta geratuko da elurpean, elur-jausi baten ondoriozx. *Peter* anaiak (Chris O'Donell) erreskate taldea antolatuko du, Annie bizirik topatzeko itxaropenaz. Gauzak horrela, tentsioa izango da nagusi amaiera bitartean. Ikusleek paisaia zoragarriekin gozatzeko aukera izango dute tartean.

# Jaiak

### ARETXABALETA

> **Santa Ageda** mutilen dantzaldia domekan, hilak 18, herriko plazan, 19:00etan.

# Museoak

### ESKORIATZA

> **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Euskal Herriko historia, historiaurrea eta etnografia. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Astelehenetan itxita. Bisitaldi gidatuak. 943 71 54 53.

### DONOSTIA

> **Zientziaren Kutxaespazioa.** Miramongo parkea. Martitzenetik zapatura, 10:00etatik 18:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 18:00etara. Zientzia eta teknikaren erakusketa interaktibo iraunkorra.

> **San Telmo museoa.** Zuloaga plaza, 1. Martitzenetik zapatura, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:00etara. Bisitaldi gidatuak. Sarrera, doan.

### BILBO

> **Guggenheim museoa.** Abandoibarra etorbidea, 2. Martitzenetik domekara, 10:00etatik 22:00etara. Panzaren bildumaren erakusketa.

### GASTEIZ

> **Arkeologia museoa.** Correria, 116. Martitzenetik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara.

> **Arabako armeria museoa.** Fray Francisco, 3. Martitzenetik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara.

## Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigara*ren egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11

ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan; Durana, 11
943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11
945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salbador, 26
943 76 81 90

ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1
943 76 60 62



**Goienkaria,**
bailarako
hedabide nagusia.

Astero
20.000 etxetan.

Prezioa:
10.000 pezeta.

## JAIOTAKOAK

**Nora Luna Urrutia**
Bergaran, urtarrilaren 26an.
**Ane Freire Elorza**
Oñatin, otsailaren 2an.
**Peru Bengoa Zubizarreta**
Aretxabaletan, otsailaren 3an.
**Joseba Kalboetxeaga Cano**
Oñatin, otsailaren 3an.
**Uxue Errasti Beitia**
Aramaion, otsailaren 5ean.
**Ariane Lopez Zufiria**
Oñatin, otsailaren 7an.
**Haizea Bengoa Etxeberriarteun**
Aretxabaletan, otsailaren 8an.
**Naiara Ijurra Goñi**
Arrasaten, otsailaren 8an.
**Igoitz Mateo Zufiria**
Aramaion, otsailaren 11n.

## HILDAKOAK

**Maxima Lopez Del Olmo**
Bergaran, otsailaren 9an,
84 urte zituela.
**Casiana Jauregi Laskurain**
Bergaran, otsailaren 9an,
97 urte zituela.
**Gerardo Agirreazaldegi Arantzabal**
Elgetan, otsailaren 9an,
95 urte zituela.
**Vidal Castro Sandoval**
Aretxabaletan, otsailaren 9an,
75 urte zituela.
**Maria Serrano Izquierdo**
Arrasaten, otsailaren 9an,
72 urte zituela.
**Simon Gruceta Axpe**
Arrasaten, otsailaren 10ean,
73 urte zituela.
**Antonia Igarza Aranburu**
Arrasaten, otsailaren 11n,
93 urte zituela.
**Maria Concepcion Alberdi Alberdi**
Bergaran, otsailaren 12an,
91 urte zituela.
**Juana Anduaga Zabaleta**
Oñatin, otsailaren 12an,
81 urte zituela.
**Ismael Garasa Melero**
Arrasaten, otsailaren 12an,
44 urte zituela.
**Paulina Gallego Lozano**
Bergaran, otsailaren 12an,
91 urte zituela.
**Blas Madinabeitia Arregi**
Arrasaten, otsailaren 12an,
84 urte zituela.
**Lucia Amosarrain Uribetxebarria**
Arrasaten, otsailaren 13an,
95 urte zituela.
**Maria Basterra Alzola**
Antzuolan, otsailaren 13an,
74 urte zituela.
**Sabino Llodio Bengoa**
Arrasaten, otsailaren 14an,
85 urte zituela.



**Miren Loiti Jaka** eta **Sergio** aita, bergararrak biak. Miren otsailaren 7an jaio zen eta 3,190 kilo pisatu zuen. Ama **Nuria** da, eibartarra.



**Ariane Lopez** oñatiarra **Mari Luz Zufiria** amarekin, mondragoetarra. Ariane otsailaren 7an jaio zen, eta 3,150 kilo pisatu zuen. Aita **Jabier Lopez** da, oñatiarra.



**Naiara Ijurra Goñi Maribel** amarekin, mondragoetarrak biak. Naiara otsailaren 8an jaio zen eta 3,620 kilo pisatu zuen. Aita **Bittor Ijurra** da, mondragoetarra.



**Haizea Bengoa Etxeberriarteun** atxabaltarra **Mentxu** amarekin, atxabaltarra hau ere. Haizea otsailaren 8an jaio zen eta 3,600 kilo pisatu zuen. Aita **Peru Bengoa** da, atxabaltarra hau ere.



**Joseba Santacristina** eta **Maria Luisa Milan** ama, mondragoetarrak biak. Joseba otsailaren 11n jaio zen eta 3,760 kilo pisatu zuen. Aita **Ricardo** da, mondragoetarra.

## EZKONDUTAKOAK

**Jose Alberto Camuesco Andres** eta **Ana Belen De Castro Ramos.** Eskoriatzan, urtarrilaren 20an.
**Luis Mari Fernandez Seco** eta **Mari Carmen Perez Hidalgo.** Aretxabaletan, urtarrilaren 27an.
**Jose Migel Ramudo Ramudo** eta **Virginia Movellan Iriarte.** Bergaran, otsailaren 8an.
**Jorge Oiarbide Garcia** eta **Maria Angeles Arrese Elorza.** Aretxabaletan, otsailaren 13an.

**Zure lagun edo senitartekoren bat ezkontzekotan badago eta zoriondu nahi baduzu, hemen duzu aukera. Ekarri bikotearen argazki bat *Goienkaria*ko erredakziora edo egoitza hauetara: Aretxagazeta eta Arrasate Presseko egoitzetara.**



**Martin Beitia** eta **Nikolasa Beloki** Eskoriatzako Gaztañaga auzoan ezkondu ziren, Santa Kolonba elizan, 1951ko otsailaren 1ean, hain zuzen ere. Joan zen hilaren 4an, domekan, ospatu zuten 50. urteurrena euren senitartekoekin. Lehendabizi meza izan zuten Arantzazun, eta ondoren bazkaria Zumelaga jatetxean. Seme-alaba eta biloba guztien partetik, zorionak, bikote!

### ESKER ONA

# Ismael Garasa Melero



Arrasaten hil zen
2001eko otsailaren 10ean,
44 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

# Simon Gruceta Axpe



Arrasaten hil zen
2001eko otsailaren 10ean,
73 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

# Pedro Jose Alkorta Mujika



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailak 18,
12:30ean,
Bergarako San Pedro parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

# Luzio Errasti Zufiria



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailak 17,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren
parrokian

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko
sendikoen izenean*

### URTEURRENA

# Julian Biain Igartua



Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailak 17,
10:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren
parrokian

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKELA

# Maria Astigarraga Mendizabal

Bergarako San Juango eskolako maistra izendakoa

*Bere oroimenean
meza domekan,
hilak 18, goizeko 11:00etan
Bergarako San Juan elizan*



# Hitz gurutzatuak

Luma



**Ezker eskuma**

1/ Plaza. 2/ Sustraiak. Euskaraz eta kitto! 3/ Iridioa. Edateko. Lehenengoa. 4/ Bibliako pertsonaia. Aita. Herri Batasuna. 5/ Emakume izena. Etzaleku. 6/ Bokala. 2000.urtean. Rötgen. 7/Santu. Egokiera. 8/ Oinarrizko edaria. Bokala. Har ezak! 9/ Nau. Infin., esnatu. 10/ Epaitegiak.

**Goitik behera**

1/ Ezina. 2/ Oparoa. Lege. 3/ 3,1416. Oparitu. Uztailaren hasieran. 4/ Emakume izena. Urrea. Eguzki. 5/ Detektagailua. Kanpo. 6/ Eraila. Bokala. 7/ Nitrogenoa. Jainko egiptoarra. Nork atzizkia. Begiaren erdian. 8/ Denbora. Ontzat eman. 9/ Kontsonante errepikatua. Bat eta bat.Edari alkoholduna. Amaiera. Nor atzizkia.

# Bila-bila 7





# Umore giroan

David Peñalver

**TXINDURRIXAK**

Kalian gora, barriketan, lagun bi:

— Hi, badakik zergaittik jaiotzen diran urtian hainbeste txindurri?

— Ez, zer ba?

— Eurendako kondoirik ez dalako asmau gaur arte.

**ABIXARAN**

— Nora hoia halako bizkor?

— Botikara, kaka egitteko pastillak erostera.

— Kaka egitteko pastillak? Ez dok hoba kaka eginda erostia?

**TXULETAK**

Bi lagun jarri dira mahai baten afaltzeko intenziñuakin. Txuleta bana eskatu ostian, etorri da kamarerua, bandejan bi txuleta dauzkala. Bat, haundixa; bestia, txikixa.

Txuletok mahaixan ipintziaz bat, batek haundixenari egin dotsa golpe.

— Hi, errespetuagaittik nik txikixena hartuko neuke.

— Mutil, ba hor dakak!

**HILDAKUA**

Hilleta elizkizunen ostian, kaletik kanposantura bidian, eta bide baztarretik, lagun bi:

— Hi, zein dok kaja barruan doiana?

— Joder, hi, hildakua, zein izangok ba!

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Non ardi gehien?

Bailarako herrietan bizilagun gutxien dituena zein den galdetuko bagenu, denok asmatuko genuke, seguruena. Gatzaga da. Baina, lurrez txikiena zein den galdetuz gero, asmatuko ote genuke. Ondorengo hiruretako bat da. Zein?

- Elgeta?
- Leintz Gatzaga?
- Aramaio?

**Erantzun zuzena:** Oñati. 66,4 ardi daude kilometro koadroko. Eskoriatzan, ostera, 60,5, eta Aramaion, 30,8.

## Soluzioak



**Ezker eskuma**

1/ Enparantza. 2/ Zaainak. AEK. 3/ Ir. Edari. A. 4/ Noe. Aba. HB. 5/ Tamara. Ohe. 6/ A. Aurten. R. 7/ San. Aukera. 8/ Ur. E. A. To!. 9/ Nauka. Esna. 10/ Auzitegiak.

**Goitik behera**

1/Ezintasuna. 2/Naroa. Arau. 3/Pi. Eman. Uz. 4/ Ane. Au. 5/ Radarra. At. 6/ Akabatua. E. 7/ N. Ra. Ek. Eg. 8/ Tai. Onetsi. 9/ Ze. Hh. Rona. 10/ Akabera. Ak.

# Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zeure buruari, familiari eta abarri astia emateko une egokia. Zure usteak ez ziren ez ustelak.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Denbora luzez hausnartzen zabiltzana betetzeko astea duzu hau. Guztia argi ikusiko duzu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Hausnartu ezazu kontu guztiak fidagarriak izan daitezen zelan azaldu behar dituzun.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Buru-belarri ibili beharko duzu konponbideak topatzeko, ez izan baina liskarren beldur.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Zure harrotasunak ez dezala defendatzen duzuna hondatu. Diplomaziaz aritu zaitez.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Ez zaitez gehiegizko hausnarketan trabatu, hobetzeko aukerak gal ditzakezu eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Etorkizuna orain bezain oparoa izatea espero arren, okerrera egingo du. Egin ezazu hobekuntzen alde.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Espero ez zenituen berriek kirioak dantzan jarriko dizkizute. Arazo horiek konpontzeko indarrak atsedena hartuz soilik lortuko dituzu.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure ideiak, gogoa eta jarrera biziberrituko dituzten egitasmo berriak izango dituzu esku artean. Saia zaitez.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Zeure interesak direla eta, errealitateari ihes egiten diozu batzuetan. Pentsatu eta gero berba egin.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lan gogorra eta ahalegin bizia eskatuko dizuten ideia bikainak.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Amestutako guztiak egunerokoan agertu behar du. Eduki ezazu konfiantza handiagoa zeure buruarengan.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA


Bailarako
berriak,
bailarako
jendea,
bailarako
telebistan.
Goitb
Goiena Telebista

# Goiena Telebista

## Telebegi

### GOITB

Hasieratik sinistu dut bailarako telebistaren proiektuan, eta momentuz, hala sinisten jarraitzen dut. Gertu-gertuko albisteak interesatzen zaizkigu, herrian gertatzen direnak, baina baita inguruko herrietakoak ere. Bergaran Mikel Urdangarinek kontzertua eskainiko duela jakitea interesgarria zait, Oñatira Frantziako ikasle batzuk etorri direla jakitea, ez hainbeste. Hau da, norberaren gustuen arabera, albiste batzuk beste batzuk baino erakargarriagoak zaizkigula.

Naturala ez dena da nik Oñati, Elgeta, Antzuola eta Bergarako albisteen berri bailarako telebistan jasotzea, eta herri horretakoek, ostera, aukera hori ez izatea. GOITBko albistegia ikusten dudan bakoitzean, egoeraren aldrebesaz pentsatzen dut. Zeren zein zentzu du Bergaran ez dakit zein obra egingo dela jakitea, bergararrek albiste hori ikusteko modurik ez badute? Niretako albisteak hortxe galtzen du zentzu guztia. Baina, herri horietako biztanleei ere antzera gertatuko zaiela iruditzen zait. Makina bat izaten dira herri horietan egiten diren elkarrizketak eta hartzen diren irudiak. Bukaeran, elkarrizketatuak ez du betiko galdera egingo: "Zein ordutan ikusiko dut nire burua telebistan?" Galdera, jakina, beste bat izango da: "Noiz ikusiko dut bailarako telebista, GOITB, gure herrian?"


Maria Agirre

## Mahaiaren bueltan

Eguaztenean, 21:05ean

### Garapen jasangarriaren gaineko eztabaida



Garapen Jasangarriaren gaineko mahai ingurua izango da datorren eguazteneko *Mahaiaren bueltan*. Esther Larrañagak, Jaurlaritzako Ingurumen sailordeak, Rafa Ugartek, Mondragoeko Udaleko Ingurumen teknikariak, Mikel Olabek, EKIko kideak, eta Imanol Madariagak, EHUko irakasleak, esku hartuko dute. Gizartearen bilakaera eta ingurunea aztergai, hortaz, eguaztenean. Saioa Monika Belastegik aurkezten du.

## Albiste aurrerapena

Egunero, 13:30ean

### Eguerdietan, albisteen aurrerapena

Egunero, 13:30ean, eguneko albiste garrantzitsuenen aurrerapena ematen du GOITBk. Kontsumoari eskainitako tartea dator ondoren: kontsumitzaileendako interesgarri izan daitezkeen hainbat gairen gaineko informazioak (Maileguak... Aseguru etxeak... Alokairuak...) osatzen du tarte berezi hori. Bezperako programazioaren errepikapenak ematen dio amaiera eguerdiko emisioari. Gogoratu, hortaz, herrian jasotakoaren berri, 13:30ean, GOITBn.

## Astebete

Egubakoitza, 21:05ean

### Elkarriren bake proposamena aztergai

Elkarri erakundeak abian jarri berri du bake konferentziarako proposamena. Egubakoitzeko *Astebete* saioak proposamen horren gainean egindako erreportajea emango du. Ez da gai bakarra izango: ohi bezala, asteak eman dituen albisterik nagusienak ere aztertuko dira programan. Era berean, Debagoieneko herri aldizkariei ere egingo zaie errepasoa.

GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Urtarrila: 16-22

| EGUBAKOITZA 16 | ZAPATUA 17 | DOMEKA 18 | ASTELEHENA 19 | MARTITZENA 20 | EGUAZTENA 21 | EGUENA 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30: **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete** | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, Alkatearekin berbetan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, Alkatearekin berbetan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete*<br>20:30 **Futbola: UDA-Zumaiako** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Astebete** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Xeleberri** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Xeleberri** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Mahaiaren bueltan** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Mahaiaren bueltan** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Sarrera doan** |

## Barruko kontuak

### DOMEKAN, FUTBOLA

Domekan futbola eskainiko du GOITBk. Aretxabaletako UDAk eta Zumaiakok partidua jokatuko dute Ibarran domekan. GOITBk domekan bertan emango du bi taldeen arteko partidua, arratsaldeko zortzietan, hain zuzen ere. Astelehen eguerdian ere errepikatuko da emanaldia. Kirolei dagokienez, gogoratu, gainontzean, eta astero moduan, astelehenean kirol guztien berri izango duzuela *Goienasport*en.

### SAREAN: INTERNETEK SEKRETURIK EZ

Martitzenero, *Berriak* albistegiaren barrenean ematen da *Sarean*, interneten gaineko mikro-saioa. Alberto Izagirre atxabaltarrak egiten du *Sarean*, eta internet erabiltzen erakustea eta beronen gaineko informazio baliagarria ematea du helburu. Asteroastero, hortaz, internet protagonista *Berriak*en, teknologiak geroago eta garrantzi handiagoa duen gizartean ondo maneiatzeko ezinbesteko tartea, horrenbestez.

## Kamera aurrean



*"Xabik oso ondo bete du 'Portuk' utzitako hutsunea"*

**Jose Ramon Bolinaga "Txerra" | RIP-eko kidea**

"SARRERA DOAN" (2001-15-02)



*"Gizartearen esku hartzea behar du Elkarriren bake konferentziak"*

**Juanjo Perez | Elkarriko kidea**

"BERRIAK" (2001-13-02)

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko otsailaren 16a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Edu Muruamendiaraz/Dantzaria

**Izango luke zentzurik zure bizitzak dantza barik?**

— Une honetan, ez. Nire bizitza dantzarekin bideratu dut, eta orain ez dut beste era batera ikusten.

**— Zer da dantza?**

— Gauza asko eman dizkiot dantzari, eta dantzak ere eman dizkit. Dantzaren bidez gure kultura ikasi dut, harremanak egin, jende gazteari erakutsi, tokiak bisitatu... Ia guztia dut dantza. Duela 29 urte hasi nintzen ikasten Moises Aspiazurekin, ikastolan, eta orain arte segitu dut. Ez naiz batere damutzen, nahiz eta oso garai txarrak ere igaro.

**— Gogoratzen duzu lehenengo txapelketa?**

— Sei urterekin hasi nintzen dantza ikasten, eta lehenengo txapelketa zazpi urterekin egin nuen, Jaione Aranarekin batera. Bikote guztiendako egoten ziren opariak, eta guri, biondako, erloju bakarra eman ziguten. Azkenean, gurasoek dirua jarri eta beste erloju bat erosi zuten.

**— Aurresku eta sueltoko txapelketetan ez zaitugu berriro ikusiko?**

— Ez. Orain dela lau urte utzi nituen txapelketak, hiru urtez segidan Euskadiko txapelketak irabazi ondoren. Erabaki gogorra izan zen, dantza albo batera utziko nuela uste nuen eta.

**— Baina, ez zen horrelakorik gertatu.**

— Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak eman zituen koreografiak egiteko. Ez nekien zer ziren ere. Dirua eman zidaten proiektua aurrera eramateko, eta dantza tradizionaleko osagaiekin koreografia osatu genuen. Orain, klasikoa, garaikidea... egiten ere hasi gara, oinarrian dantza tradizionalari eutsiz.

**— Salsa, samba, tangoa... horrelako dantzek erakartzen zaituzte?**

— Bai, baina beste dantza batzuk ikasi gura ditut lehenengo.

**— Euskal Herriko Joaquin Cortes zaitugu?**

— Gustatuko litzaidake berak dituen diru laguntzak izan eta egiten dituen birak egitea. Niri gustatuko litzaidake gure dantzak Euskal Herritik kanpoko jendeari ere erakustea, eta horretan badiot inbidia apur bat.

**— Dantzarako bikote bat?**

— Orain dudan bikotekidearekin, Eli Alberdirekin, oso gustura nago. Nire emaztea da, gainera. Ordu pila bat sartu behar dira, oraindik ez gara profesionalak eta. Hortaz, emaztea bikotekidea izateak asko laguntzen du.

**— Zeini ez zenioke eskainiko aurresku bat?**

— Ez dut izenik esango, badaezpada ere.

**— Eta zeini eskainiko zenioke?**

— Ezkondu ginenean, Eliri eskaini nion, eta oso polita izan zen.

**— Ez dituzu buruak hanketan izango, baina dantzatzean, askotan, hankak buruan bai.**

— Hori orduak sartuta lortzen da. Baina, hankek eta buruak lotuta joan behar dute, bestela alferrik da. Bururik izan ezean, hankak ez dabiltza.

**— Desio bat?**

— Buruan ditudan proiektuak aurrera eramatea.



**"Ez naiz batere damutzen dantzan ikasten hasteaz, nahiz eta oso garai txarrak ere igaro ditudan"**

**"Erabaki gogorra izan zen txapelketa uztea. Dantza albo batera utziko nuela pentsatzen nuen"**

► *Bergararra / 36 urte / Koreografoa*

## AIPAGARRI



**IÑAKI GALDOS**
**Oñati / Filologoa**

Zinegotzia da Oñatiko Udalean eta legebiltzarkidea Gasteizen. EAko Gipuzkoako exekutibako idazkari nagusia izan da. Aste honetatik aurrera, ostera, presidentea izango da, Jon Goikoetxea ordezkatuz. 34 urte ditu eta Euskal Filologian lizentziaduna da.



**PELLO URIZAR**
**Arrasate / Enpresaria**

Gipuzkoako EAko presidentea aukeratzeko bi hautagai zeuden, eta biak ere, debagoiendarrak: Iñaki Galdos eta Pello Urizar. Lehenengoa aukeratu dute. Pello EAko Gipuzkoako exekutibako komunikazio idazkaria da. Gazte Abertzaleko kidea izandakoa da. 32 urte ditu.

Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.

GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS

Erantzuna hemen duzu.

www.guipuzcoana.com